

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Abenduak 7, 86. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Txikitatik erritmikan



HOTZ-BERO

KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA (Estrazloak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurrira egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK



ARRASATE

PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.

Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitakoan, ASA taldea.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Euskal pelota

Amaitua da dagoeneko, La Habanan zenbait egunetan zehar jokatu den Munduko Euskal Pelota Txapelketa. Lerro hauek idazten ari naizela, karibear irlan egon diren pelotari, kazetari, politiko eta zaleak maletak egiten ibiliko dira honuntzeko bidea hartzeko. Batek baino gehiagok problemak izango ditu aduanan, tabako eta ronaren gehiegizko erosketak direla eta. Beste askok, berriz, hona iristean igerriko dute iruzurra, *Cohibastzat* ekarritakoak zerrautsezkoak direla ohartzean.

Baina, beste iruzur grabeago batez idatzi nahi nituzke zenbait lerro, pelota munduak ez nauela gogoz tiratzen abisatuta gero. Irakurleak jakingo duen bezala, Espainia da munduko guztikoen artean bere federazioari *euskal* izenlaguna kendu dion bakarra. Eta pelotariak gehienak hemengoak izanik- ziur aski euren bihotzetan sentitzen ez duten bandera baten itzalpean aritu behar izan dute. Noski, egoera anormalaren erroak iraganean bilatu beharko genituzke, Espainiako oraingo agintariek absurduaren korapiloa areagotzen diharduten arren.

Espainiako ordezkaria izan da, Nazioarteko Federazioan euskaldun bati botua eman ez dion bakarra. Espainiako federazioaren presidentek, duela bost bat urte Donostian

eraturiko Sanbo-Borroka Munduko Txapelketaren oroitzapenak ekarri dizkit, hain zuzen ere, txapelketa hartan Euskadik berezko eskubidez parte hartzen zuelako gobernadoreak goardia zibilak bialdu zituen, euskaldunen presentzia eragozteko. Borrokaldiak egunsentiz jokatu behar izan ziren, ixilpean eta ikuslegorik gabe. Del Lamo jaunak ez omen zituen La Habanara *geok* eroan eta euskal ordezkariak, gutxienez, desfilean egon zen... sinbolorik gabe.

Bien bitartean, Espainiako alar-mistek -euren jantzieta uradura eraginez-, gure ordezkariaren eraso politikotzat jo dute. Kirol federazio guztiak zuzenbide pribatuko erakunde direla gogoratu beharko lukete, optika itxi eta irrazional batetik beste inondik ikertzen eta behatzen ez gaituztenek. Euskal Pelotaren Nazioarteko Federazioak hala nahi izanez gero, Euskadi kide onartu ahal izango luke. Ez al litzateke zuzenena izango? Beste eredu txiki bat ipiniko nieke sasi-itsu horiei: Espainiak ez al du futboleak nahiz rugbyaren Eskozia, Gales eta Ingalaterrarekin nazioarteko partidurik jokatu behar izan? Eta nik dakidanez, horietako bat ere ez da estatu-ordezkaria. Zertara, beraz, horrenbeste beldur?

Jose Mari Velez de Mendizabal



**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE


Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

JOSTEKO OIHAL DENDA

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABALETAKO

olioak, **Artea**,
lientzoak,
akuareliak eta
eskulanak
Ferrerias



ETXE-AUNDI
Dastapen-menua
abenduarien 14rako

- * Itsaskien entsalada belar finekin
- * Ahate ragout-a letxua hostotan.
- * Legatza piperrada gainean.
- * Etxe Aundi gozoteria.

3.500 pta. BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Lagun bati

Duela egun batzuk utzi gintuzun. Betirako gugan arrasto ezabaezina utziz joan zinen. Horregatik gogoratuko zaitugu beti zure ontasunagatik eta bidezkoa ez zela zeneritzan guztiaren aurka zure etengabeko borrokagatik. Zure ezadostasunak ideia batzuren alde borrokarazi zizun mundu irreal batean.

Zeure buruarekin konformagaitza izan zinen eta handiezina zen zerbait gaintzetzeko irrika horrek, (zuk zeuk), galdua zen gatazka batean borrokarazi zizun zeure buruaren aurka.

Zurekin doaz gure ilusio anitz, baita gure barneko zerbait ere, zeuk emana bait zenigun zeure zatia, zure adiskidetasun axolagabe eta dohainaren bidez.

Baina zure aholku eta hitzak gure artean geratuko dira. Agian dantzariren batek, zure azken agurraren eguna faltan botako du azken agurra emateko.

Nik badakit hemendik aurrera txistua jotzen entzuten duten aldiro, bakarrik zure txistu magikoa entzungo dutela eta hau entzuteaz bat, haietako bakoitzak bere dantzarik hoberena dantzatuko duela zure ohorean, eta horrela, notaz nota, hasieratik amaieraraino, zutaz pentsatuko dute.

Zure txistu magikoa. Zuk sentitzen zenuen guztia bere notetan adierazten zuen txistu berezia, bertatik ateratzen zen zerbait zeurea zen, txistua.

Leintz bailara osoan zure izenean entzuten jarraituko den txistu magiko hori, zure harreman bidea izan eta beragatik hainbeste eman eta egin zenuen txistu magikoa.

Zure azken agurraren egunean denok zure ingurura bildu ginen hertsiki, begietatik malkoak zerizkigula, batzuk, behin eta berriro geure buruari, zergatik? galdetzen geniolarik.

Baina oraingoan ez genuen erantzunik jasotzen. Agian, zuk galdetu zenigunean ez genuen erantzuten jakin izan, edota ez genuen egokiro erantzuten jakin.

Norberak bere erara? Galderak ia etengabe errepikatzen ziren, bata bestearen atzetik, bata bestearen entzuten galerazten zuelarik, Baina azken finean galderaren edukia ezberdina izan arren, galdera beti bera, zergatik?.

Zuk inguruan gertatzen zenaz ohartu gabe, zeure patuari jarraitzen zintzaizkion, zuk sortu nahi izan zenuen baina ezinezkoa izan zen mundo horren bila.

Barka iezaguzu, ez bait genuen jakin zer eskatzen zenigun ulertzen, baina ez duzu basamortuan predikatu, ez, irakatsi zenigun on guztia, zure aholku eta ontasuna, ez da ahanzturan geratuko,

hortzez eta atzazalez defendatuko dugun batioia izan da guretzat.

Agur, Pablo. Guretzak, zure lagunentzat, zure kuadrilarentzat, "Bera komando"-rentzak (honela deitzea gustatzen zaigu) beti izango zara "Katxo" eta izen honekin gogoratuko zaitugu beti.

Bixen

Udaletxe. letxes, letxes, letxes

Gezurra esan zuen. Dakizuen bezala, orain aste batzuk direla, Udaleko Gobernu-Batzordeak herriko hamahiru kolektibori denboraldi baterako Udalaren bulego bezala erabili ziren lokalak ematea erabaki zuen.

Hiru urtetan zehar leku batetik bestera aldabak jotzen ibili ondoren. Mota askotako eta sinistu ezinak diren lekuetan entseiatzen (kanposantu azpian, San Frantziskoko klaustroetan, pisuetan, ermitetan, bihotz oneko jendeen lokal superkonpartituetan, etab...).

Zuren zuzenean ezezkoarekin edo Udalaren ixiltasunarekin topo egiten zuten horrenbeste papeleo eta proposamen alternatiboen ondoren, bapatean algararte "lokalak badaudela", eta oso onak gainera, sinistuezinezko beriarekin aurkitzen gara.

Baina nola ez, egia izateko politegia zirudien.

Udalak berriz gatzarekin eman digu. Dena gezur handi bat da, espekulazio hutsa. Egia da Ikastolak denbora luze zeramala lokal horien atzetik, eta albistea komunikabideetan "filtratu" zenean, Ikastolak Udala ohartarazi zuen. Logikoa dena.

Asperturik gaude hainbeste ziri sartzeaz; Udalaren maniobra ilunegia eta jendearen aurrean aurpegi garbitasunaz. Euren seriotasun eskaxaz eta beren aktibitateetatik propaganda mailan probetxu argia atera ez dezaketen pertsonen beharren, edo sinpleki, manipula ezina egiten zaien guztiaren aurrean mesprezu osoa adierazteaz.


Kolektibo bezala, Antzerki talde batentzako guztiz beharrezkoa den gauza bat bakarrik eskatzen dugu, entseiatzeko, materiala gordetzeko eta geure istorioak gertatzeko lokal bat.

Eta pertsonak garen bezala, errespetuz eta adar jotzeko alde batera utziz tratatzea eskatzen dugu.

Hainbesteko eskaintza da? Zuk zer deritsozu?


Tunantes del Norte

Zer iruditzen zaizu Bergara-Arrasate autobidea Etxezarretatik pasatzea?



Jesus Mari Barrena
(ikaslea)

Ez zait ondo iruditzen, uste dut inguru hori kontserbatu egin beharko litzatekeela.




Marga Garmendia
(irakaslea)

Niri pena ematen dit horrelako toki politak eta hemen inguruan hain gutxi egonda karretera bategatik apurtzea. Beste irtenbiderik ez badago... ez dakit, baina behar bada gehiago ikertu beharko litzateke beste tokiren batetik eramateko.



Mari Karmen Ramos
(etxeoandrea)

Ez dakit non dagoen eta zer esan, baina onerako bada, egin beharko litzateke.




Ceferino Garcia
(jubilatua)

Ez zait batere ondo iruditzen. Orain dagoen bidea zabaltzarekin konponduko lukete arazoa.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

KOPIOTXOA

Fotokopiak


Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

NAROKI

**901 MAILAKO
BITXITEGIA**



ERLOJUTEGIA

Erdiko Kale, 23. Tel.- 792047 ARRASATE

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	79 97 22
.....	79 97 33
.....	79 97 44
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO
ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO
INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77



7

OSTIRALA

• • •

• Zinea: Alai. "Cry Baby", 7 eta 9.30etan.

Novedades: "37 horas desesperadas", 10.30etan.

• Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

8

LARUNBATA

• • •

• Zinea: Alai. "Testigo accidental", 5, 7.30 eta.10.30etan.

Novedades: "La tutora", 5, 7.30 eta 10.30etan.

• Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

9

IGANDEA

• • •

• Zinea: Alai. "Testigo accidental", 5, 7.30 eta 10.30etan.

Novedades: "37 horas desesperadas", 5, 7.30 eta 10.30etan.

• Goizeko 11etan Amaia antzokian XI. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa eta III. Gipuzkoa 90 jaialdiaren klausura.

• Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

10

ASTELEHENA

• • •

• Zinea: Alai. "Testigo accidental", 7 eta 9.30etan.

Novedades: "37 horas desesperadas", 7.30etan.

• Eskolumeentzako Antzerki Astearen lehenengo eguna.
• Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

11

ASTEARTEA

• • •

• Zinea: Alai. "Testigo accidental", 7 eta 9.30etan.

• Arratsaldeko 7etan Amnistia-
ren aldeko Batzordeak an-

tolatutako enkartelamendua, Portaloian.

• Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

12

ASTEAZKENA

• • •

• Goardiako farmazia: L. Amezuza, Santa Marina.

13

OSTEGUNA

• • •

• Zinea: Zine Klub-a, Amaia antzokian arratsaldeko 8.30etan "Cuerpo de élite" pelikula.

• Arratsaldeko 7etan, Monterroneko aretoan hitzaldia eta diapositiba emanaldia, "Japoniako berri", Jon Goikolearen eskutik.

• Goardiako farmazia: A. Ruiz,

**Kirol
Agenda**

SASKIBALOA

• • •

• Musakolako kiroldegian, larunbat arratsaldeko 6etan, Centraljet Euskal Air eta Patronato taldeen arteko partidua.

FUTBITOA

• • •

• Zaldibarko txapelketaren barne, 30 partidu asteburu guztian zehar, Zaldibarko frontoian, Santa Teresa Ikastetxean, eta Musakolako kiroldegian.

FUTBOLA

• • •

• Igandean eta goizeko 11etan, Atxabalpe ondoko futbol zelaietan emakumezkoen futbol partidua, Arrasate eta Urretxuko taldeen artean.

Liburuak

• Bizkaiko bira. Mendi gidali-burua.

Hauxe da Alberto Errazti, Durangon bizi den mondragoe-tarrak argitaratu berri duen li-burua. Beroi osatzen duten 224 orrialdeak 21 kapitulutan daude banatuta, egileak Bizkaiko mendiak ezagutzeko antolatu dituen 21 ibilaldien arabera.




Mendien mapa zehatzez gain, ibilbideak osatzeko behar den denbora ere neurtu du, ton-tor bakoitzaz datu eta zehazta-pen dexente emanek. Baina ez da hor gelditu, ze inguruetak toponimia, baselizak, historia, eta eraikuntzen berri ere ematen bait du. Amaieran bibliogra-fia eta guzti datorkigu. Bizkaiko mendiak beste era batez dasta-tu ahal izateko liburu gomenda-garria.

Erakusketak

• Egur Tailagintza

Abenduaren 5etik 12ra bi-tartean Kepa Uribarren Munitxa arrasatearraren taila erakuske-ta izango da Monterron jaure-gian. Kepak 23 urte besterik ez ditu eta lanbidetzat du tailagin-tza aukeratua. Erakusketan, era guztietako lanak izango dira ikusgai, lanegunetan arratsal-deko 6etatik 7ak bitartean, eta jaiegunez berriz, 12etatik 14etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.



DURANGO

Euskal liburu eta diskaren azoka

Aurtengoa 25.a izango da Durangoko Euskal Liburu eta Diskaren azoka, euskaldun askoren urteroko zita. Liburu eta diskak ikustera joatea da denok erabiltzen dugun aitzakia, eta konpromenez ez bada ere, denok erosten dugu bakarren bat. Aurten ere izango dugu horretarako aukera, 140 stan-detan zehar, jende piloak bitarterik harrapatzen badugu behintzat.

Bestelako ekintzen barruan, hitzaldiak eta liburuen aur-kezpenak aipatu behar. Abenduaren 7an Olerkigintzari buruzko mahaingurua izango da arratsaldeko 7etan, Henriette Aire, Edorta Jimenez, Felipe Juaristi, Juan Mari Lekuonarekin. Inguruko ekintzen artean, kantaldiek sortu dute ikusminik handiena. Horrela, abenduaren 7an Antton Valverde eta Xabier Leteren kantaldia izango da, gaueko 10etan Kuruziaga zineman, eta 8an, berriz, Benito Lertxundirena. Bizkaiko bertsolarien Txapelketako finalaurrea Durango izango da.

Lehiaketak

• Kartel lehiaketa

Arrasateko Haratuzteak ira-garriko dituen kartela egiteko lehiaketa deialdia egin da, Arrasateko edozeinek parte hartu ahal izango duelarik. Kartelaren neurriak 50x 65 izan behar du, nahi eta nahi ez bertikalean, eta testu moduan 1991 Haratuzteak - Arrasate jarri beharko da. Irabazleak 50.000 pta.ko saria jasoko du. Egoki eritiz gero, aurkeztutako lane-kin erakusketa antolatu ahal izango du Udalak, eta kartel ira-bazlea Udalaren esku geratuko

da, argitaratzeko. Lanak 1991ko urtarrilaren 17a baino lehen aurkeztuko dira, Kultura sailean.

Antzerkia

• Eskola Antzerki astea

Abenduaren 10, 11, 12 eta 14ean izango da Arrasateko ikasleentzat Eskola Antzerki Astea Guztira 2.700 ume inguruk hartuko dute parte. 10 eta 11n goizez eta arratsaldez Peter Robers-en Azti mutila izango da, eta asteartean Bihar antzerki taldearen eskutik Fantasia puzzlea. Hilaren 12an Lantzeko Bandoleroa obra eskainiko du Bihar taldeak eta

Kukubiltxo taldeak Orreaga hilaren 14ean. Eskolaurre-koentzat Txotxongilo taldearen Errekamari, Euskal Herriko azken lamia lana izango da ikusgai ikastetxeetan.

Jaialdiak

• Bertso Saioa

Bergarako Compafia de Maria Ikastolako ikasleek anto-laturik, bertso saioa izango da abenduak 8 larunbatez. Ikasto-lan bertan, gaueko 10etan, Laz-kaio Txiki, Murua, Mafukorta, Jon Sarasua eta Mendizabal eta Zabale anaiak izango dira.

Kontzertua

• Gipuzkoako Soinu Lehiaketaren inguruko jaialdiak asteburu honetan izango dira Arrasateko Batxilergo Institu-tuan, Gipuzkoako Akordeoi Kontzertakundeak antolaturik.

Ostegunean, goizeko 9etan Junior mailakoen kanporaketa. Ostiralez, ordu berean, senior maila eta arratsaldeko 4etan haur mailakoa izango dira. Larunbatez hiru maila horietako azken saioak izango dira, eta igandez, berriz, goizeko 11etan amaierako jaialdia, Amaia antzokian, Arrasateko soinu orkestraren emanaldia eta lehiaketan parte hartu eta maila bakoitzean hiru onenen artean geratu direnen saioa.



“ “ 1958ko martxoaren 18an RONEO enpresan lan egiten dugun guztion partetik agur bero bat bidaltzea baino ez da mezu honen helburua, bizi zareten guztiontzat, RONEO enpresakoak zareten guztiontzat, zuzendariarengandik hasi eta atezaina edo bere ordezkora arte, kaxatxo hau irekitzen den egunean.

Bizi izatea egokitu zaigun garai gogor eta zail honetako arrasto batzuk uzten dizkizuegu. Zorionsu izatea opa dizuegu, bakean bizi zaitezela, eta... denok izan dezazuela hozkailua, autoa edo autojirona nahiz hori baino ibilgailu azkarragoren bat. Zuetako norbait Ilargian izango zen, dagoeneko, edo Marten behar bada. Batzuk Venusen edo Saturnon pasatuko duzue uda. Gu Landara edo Kanpazarrera joaten ginen, eta zorterik gehien zutenak Donostiara edo beste hondartza batzuetara.

Gogora zaitezte gutaz, daukazuen guztia ez zen eta posible izango gure ahalegin eta izerdi barik.

Gu atsedenean izango gara ordurako, betiko bakean gozaten, batek daki non! Ez gaitzazue ahaztu. Ez pentsa gaur triste gaudenik, bai zera! Gaur San Jose bezpera da, bihar hainbat Joxeren eguna da eta alaitasunak eta umore onak gainez egingo du gure bihotzetan. Seguru asko zuek ez duzue jakingo bildots errea jan eta ardo onetik trago egitea zer den, pastilen puruz eta zikinkeriak edanaz bizi zarete eta. Eta guk ohar honekin batera ezin utzi zuentzat Errioxako ardo onaren botila bat ere!

*(1958an RONEOko langileek segurtasun kutxan
uztitako mezua)*

Pertsona bat alfabetatua izan edo ez izateko, zer eragin dauka hezkuntzak?

Edozein pertsonaren alfabetze mailan hezkuntza erabakiorra da. Hezkuntzaren helburua alfabetatzea da, eta zentzu horretan garrantzi handia dauka. Alfabetatzea helburua izateaz gain, era berean emaitza ere bada, hau da, hezkuntzaren ondorioz sortzen den produktua. Beraz, esan daiteke helburua eta emaitza gauza bera direla. Bestalde, gaur egungo alfabetatze kontzeptuak ez dauka zerikusirik duela urte batzuk zegoenarekin. Historian barneratuz gero, hasieran alfabetatze kontzeptua oinarrizko mailan kokatzen dela esan daiteke; hau da, idatzi eta irakurtzeko zeinuak ezagutzera mugatzen zen. Gero, gerra ostean, kontzeptu hori zabaldu egin zen, alfabetatze funtzionalaren garaia izan zela esan daitekeelarik; idatz eta irakurtzeko zeinuak ezagutzen dira, baina erabilera bultzatu nahi da, behintzat oinarrizko maila batean. Gaur egun, noiz behinkako erabilera maila gaintitu egin da, eta, helburua alfabetatze ilustratua da. Hasi, hizkuntzaren zeinuak ezagutzetik hasi zen, gero erabiltzera, eta orain hizkuntza mintzatua, idatzia eta irakurritakoeekin parekatu nahi da. Gizarteak, hizkuntzaren zati handi bat idatziz ematen du, hizkuntz mota hori mundu horretan dabilzanek erabiltzen dutelarik eta horrek jendearen artean diferentziak sortarazten ditu, hitz egin, irakur eta idazteko orduan. Hezkuntzaren azken helburua diferentzia horiek desagertaraztea litzateke.



Ana Tebedoski,
Linguistika irakaslea.

DEBA GARRAIKO UDAL ELKARTEA

Hondakin solidoen zuzendari-arduradun bat kontratatu behar da:

Ingurune Zerbitzuberuaren menpean, Zuzendari honek pertsonal, tekniko eta antolamendu mailan Zabor Errauspen, Bilketa eta Garraio Arloen funtzionamenduz arduratu beharko du.

Betebeharrak

- Titulazioa: erdi mailako Teknikaria.
- Deba Garaian bizi izateko prest egotea.
- Gutxienez, bi urtetako esperientzia antzerako erresponsabilitate lanpostuetan.

Interesatuak abenduaren 20ko arratsaldeko 3ak baino lehen, Arrasate Pasealekua 5ean, dauden Udal Elkartearen bulegoetan beren eskaerak aurkeztu beharko dituzte. Tfno. 79 33 99.

Informazio gehiago aipatutako bulegoetan.

Arrasaten, 1990eko azaroaren 27an.

Oñati

Jakina denez, Oñatin azaroan "Oñatin saldu eta erosi euskaraz" kanpaina burutu da, eta dirudienez kanpainaren helburuak betetzen ari dira, erosle eta dendarien ahalegin eta partaide-tza aipagarriak direlarik. Dena dela, kanpainaren arduradunek diotenez, erosketetan lagungarri izan zedin liburuxoa ez omen da gehiegi erabili. Borondatea erakutsi dela diote Udaleko Euskara Zerbitzukoek, baina kontu gehiago jarriz gero gauzak askoz ere txukunago egin zitezkeela. Erosketa-zerrendak euskaraz egiteagatik burututako zerrendak irabazle hauetxek izan ziren: Estanis Uriarte eta Leire Derteano, bakoitzak hamar mila pezetako saria jasoko duelarik.

"Oñatin saldu eta erosi euskaraz" kanpaina gehienbat azaroan bultzatu bazen ere, Udaleko Euskara Zerbitzuak, oñatiar guztiei jarrera berarekin jarrai dezatela eskatu nahi die, abenduan ere sari berdinekin egingo da zozketa erosleen artean.



Aretxabaleta

Izango da mugimendurik Aretxabaletan datozen eguntan. Murrukixo Mendizale Elkartek eta Amilots Ekologi Taldeak, "Mendia eta Natura" izenburupean, argazki eta diapositiba lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa honetan nahi duenak hartu dezake parte, eta lanak igortzeko epea datorren astelehenean bukatzen da, hilaren 10ean. Parte hartzaile bakoitzak lau lan bakarrik aurkez ditzake, eta ondorengo helbidera bidali: Murrukixo Mendizale Elkartea, 34 postakutxa, Aretxabaleta.

Bestalde, haurrei zuzendutako kultur ekitaldi ugari antolatu dira gabonetarako: urtean zehar kultur etxean ikastaro ezberdinetan egin diren eskulanean erakusketa eta San Miguel jaietako argazkien erakusketa, Olentzeroa, gabon parkea, ohe elastiko, erraldoi puzgarri eta beste jolas askorekin. Horrekin batera, "El vengador enmascarado" antzezlan eskainiko du *Trapu zaharra* taldeak. Urtero bezala, eta Olentzeroren bisitarekin batera Bizar Zuri, eta Errege Magoen kabalgata ere iritsiko dira Aretxabaletara, urtezahar gauean eta Errage bezperan.

Bergara

Bergarako Azterketa soziolinguistikoa burutua du Siadecok, eta datorren astean zehar, azterketa horren inguruan hainbat ekintza antolatu ditu Udaleko Euskara zerbitzuak. Hilaren 8ik 16ra bitartean, erakusketa izango da Errotalde Kultur etxean, bi eratako gauzak ikusgai: Siadecoren azterketaren datuak paneletan, eta beste alde, euskara bultzatzeko ahalegin berezia egin duten idazle, eta gainerako taldeen argazkiak eta historiotxoak. Azterketaren aurkezpen moduan, hitzaldia emango dute Siadecoko Kike Amonarriz eta Iñaki Larrañagak, abenduaren 12an, arratsaldeko 7,30etan. 13an, berriz, Euskara Bergararen Historian zehar gaia aztertuko du Jerrardo Elortzak, Errotalden arratsaldeko 7.30etan.


Horrekin batera, liburukabat argitaratu da, eta etxez etxe banatuko, azterketaren laburpena herritarrek ezagutu dezaten. Era berean bideoa ere erakutsiko da, Bergarako euskararen datuak laburtuz.

RICOH

Telefax-kopiagailuak

AITZINDARI!

1000 L telefaxa: laser-izpien bidezko inprimaketa edozein paperetan. Laser inprimaketaz gain paper arruntean, RICOHren oraingo produktu honek hainbat berrikuntza harrigarri eskaintzen du inprimaketaren kalitate eta iraunkortasunaren aldetik. Funtzio-aukerarik osoena ere badu, erabiltzaileei posibilitate multzo berria eskaintzen dielarik.



Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSarekin.
Avenidaño 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ

FAX 1000 L. Laser

□ Inaugurazioa

Udaletxe berriaren inaugurazio ofiziala datorren hilaren 15ean izango da, berrikuntzen ondoren ireki zenetik bost hilabete pasa direnean. Ekitaldi horretara Imanol Murua Diputatu Nagusia etorriko da. Berregokitze lanen kostua 300 milioitakoa izanik, 3.200 metro karratu ditu Udaletxe zahar berrituak, hiru solairutan biltzen dituelarik zerbitzu teknikoak, artxiboa, kultur eta pleno aretoak eta abar.

□ AEDko sariketak

AEDk urtero antolatzen dituen sariketetan, 405 lan aurkeztu dira, horietatik ipuinetara aurkeztu diren 228ak azpimarratu behar. Helduen mailan 7, 114; 14 eta 18 bitarteko gazteetan eta 107, 14etik beherakoetan. Poesian 15 lan aurkeztu dira eta bideoaren sailean lan bakarra azaldu da. Jokin Zaitegi sariketari dagokionez, zazpi lan izan dira ingelesetik itzuliak, hiru frantsesetik eta esperantotik beste bat. Bertso papeletan ehundik gora aurkeztu dira. Sari banaketa abenduaren 21ean izango da, Monterronen arratsaldeko 7etan.

□ Extremadura

Arrasateko Extremadurako kultur etxeak, *Corazón de Encina* deituak, ohizko bilera egin zuen, eta etorritako guztiei eskerrak ematen zaizkie. Era berean, bazkide berrien izenematea egiteko San Andres auzoko alkatetzan egin daitekeela gogora arazten zaie, larunbat eta igandetan goizeko 11tatik 1era bitartean.

□ Skate pista

AUKEAk eskaria aurkeztu du Udalean skate pista berria jartzeko eskaria eginaz. Udalak, bere aldetik, pista hori non jarri aztertzen ari direla erantzun dio AUKEAri.

Txandaka

ETXEZARRETATIK PENTSAU BEZ!


Etxezarretaz hitz egitea Euskal Herriko kontrastez aritzea da, bere mendi eta haranen edertasunez eta, zoritxarrez, bere agintarien jarrera desarrollistaz, zeinek gure lurra sunsitzeko bidea daraman.

Etxezarreta, Arrasate eta Bergarako muga kokaturik dago, Deba ibai degradatuaren bazterretan (aintzina, fauna eta landaretza oparorekin). Nahiko jota dagoen gure haran honek duen alderdi naturaleriko bat da. Hondamendian dauden edifizio batzuk hartzen ditu, harmonian elkarrekin bizi diren espezie exotiko eta bertoko landarez estalitako lorategia, harizti ederrak, arteak, gaztainondoak, makalak, azkarrak, haltzak, abere txiki eta hegaztiak kulunkatzen dituztelarik. Euskal Herrian ia galdu den gurbitz ugari ere ikus ditzakegu bertan.

Hirurogeitamar espezie ezberdinetako inguru honen aberastasuna Monterron parkearekin eta antzerakoekin konpara daiteke.

Begiratuz gero, badirudi abandonaturik, ordenarik gabe, zikina dagoela, baina honetan datza, bestalde, bere aberastasun eta xarmantasunaren zati bat. Ulergaitza, gugandik kanpo ordenu bat, naturaren lege batzuk egotea espezie bakoitzari bere superbizipenaren alde borrokatzen uzten diotenak!!

Baina, beste ordenu batek, "progresoak" eta "garapenak" hain zuzen



Iñaki Jauregi (Euzko Alderdi Jeltzaren kide)

ere, Etxezarretarentzat beste destino itxurosoagoa planteiatzen du, honen sunsidura eta hondamena dakarrena, Arrasate-Bergara korredorea hartuz, autobiaaren aurreproiektuan azaltzen denez.

Bi dira aurrez-aurre dauden ikuspegiak:

- Desarrollismoarena, obra handiena, kotxe eta abiadurarena, instituzioetatik

- (Euzko Jaurlaritzan, Diputazioan, Udalan) bultzatu eta eragintzen dena, lurreko errekurtsioak agortezinak balira.

- Natura errespetatzen duena, geroz eta jende gehiagok bultzatu eta defendatzen duguna, Natura ordeztuzina eta bihurtuzina dela uste dugulako, planetan bizi garen izaki guztien arteko oreka ekologikoaren alde gaudelako.

Geroz eta kotxe gehiagorentzat geroz eta errepide, autobia, autopista gehiago eskatzen duen desarrollismoari aurre egiten diogu, xumetasunaren alde tinko azalduz, egungo komunikabide sareak konpondu eta egokitzearen alde, autoen erabilpenaren beharrezko automugaketaren alde, garraio kolektiboen promozioaren alde.

Gure lurreko bazter bakoitza maite duzuenok, Etxezarreta eta bere ingurunea ezagutzera gonbidatzen zaituztegu. Irakasleei dei berezia luzatzen diegu, ikasleekin batera joan daitezten.

(*) EKIko partaidea

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu
Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Gorostiza baserria bere hartan utziko da

Gorostizan 110 etxebizitza

Urtarrilaren 4era arte eskaerak aurkezteko epea

Joan den astean aurkeztu zen Udaleko prentsaurrekoan, Larreako promozioa martxan jartzeko asmoa. Horrela, urtarrilaren 4a bitartean irekita dago Gorostizan babes ofizialarekin egingo diren 110 etxebizitzetara sartu ahal izateko eskaera aurkezteko epea. Epearen barruan, Udaletxera joan eta inprimakin bat bete behar du eskatzaileak, hainbat datuekin: oraingo etxebizitzari buruzko xehetasunak, familiaren egoera eta abar, eta horrekin batera karnetaren fotokopia, 89ko Errenta Aitorpenaren fotokopia eta, hala badagokio, Familia Liburuarena aurkeztu behar dira. Izapide guzti horiek burututakoan egiaztagiri bana emango zaie.

Aurretik Udaletxean badira 300 lagun etxebizitza horietarako izena emanda, baina horiek ere beste paper batzuk aurkeztu beharko dituzte.

Gorostizako etxeen prezioak dato-

rren urteko baremoak izan arte ezagutuko ez badira ere, kalkuluen arabera 8-9 milioitan salduko dira, eta etxabeetan 250 garage inguru egingo dira. Lanak egiteko epeari dagokionez, martxoan hasiko lirateke lanak eta urte eta erdiren buruan amaitu. Gorostiza baserria dagoenetan gordeko da, arkitektura alde-tik dituen ezaugarriengatik.

Ordainketa sistema ohizkoa izango bada ere, badu bereizketarik Gorostizako etxe promozio honek, izan ere babes ofizialeko etxe izateagatik kreditu bigunetara jotzeko bidea izango bait da, %11ren inguruan izango direlarik mailleguak. Arrasateko Udalak, merkatuan, etxebizitzaren prezioetan eragina izateagatik hartu du promoziorako ekimena, prezio bazuagotako etxeak eskaintzearekin bigarren eskuko etxeen salneurria jaitsi dadin ere eragina izateko asmotan.

Usteak uste

Ez dakit Arrasateko politikariak mezuaz jabetu diren, baina izan dituen azken bi agerraldi publikoetan AEDk datozen Udal Hauteskundeetarako egin duen eskaria oso garrantzitsua iruditzen zait, besterik gabe aipatu barik uzteko.

Jose Mari Mujikak argi azaldu zuenez, datorren Udalbatza osatuko duten zinegotzi guztiek *euskara ere* jakin dezatela eskatzen du AED Elkarteak. Hau da, gaztelaniaz jakiteaz gainera -denek bait dakite-, euskaraz bizi nahi duten hiritarrek komunikatu ahal izateko, euskara ere, herri honetako beste hizkuntza ofiziala, jakitea.

Frankismo osteko Arrasaten, ez dut uste inor egongo denik eskaera honen kontra. Ez luke zentzurik. Hori egitea errespeto falta izugarria izango litzateke eta egingo lukkeenaren autobaztertzeara erakarriko luke.

AEDren proposamenaren beste alde ona, garaiz egin izana da, partiduak hauteskunde-zerrendak osatzen hasi aurretik. Inork ezin dezake esan berandu abisatu zaionik.

AEDk heldutasunez eta besteenganako errespeto osoz jokatu du eskari hau egitean. Pilota orain partidu politikoaren teitatu dago. Eurek dute erantzuna.

Joxe Aranzabal



Mila hitz baino
argiagoa da
irudi bat




GUBI ILEAPAINDEGIA

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74

**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Jazten hirugarren alea AEDri buruzkoa da



Jaztenen azken zenbakia kalean

Arrasate eta AEDri buruzko monografikoa

Soziolinguistikaren inguruko gaiak aztertzen dituen Jazten aldizkariaren 3. alea kaleratu da dagoeneko. Oraingo hau AEDren jardunaren inguruko zenbaki monografikoa da, eta sarrera baten ondoren, AEDren beraren eraketaren prozesua, bertsoak, Arrasateko euskarazko komunikabideei buruzko informazioa, AEDren barne antolaketa edo organigrama, euskararen aldeko hitzarmena, AEDren lanaren teorizazioa eta Euskaldunon elkarlana posible ote den aztertzeke Arrasaten izandako

mahaingurua dira zenbaki horretan agertzen direnak.

AEDren barruan, soziolinguistikaren inguruko gaien buruz aldizkari bat argi aratzeko asmoa sortu zenetik egindako hiruak, 1991ren bukaerarako 6 zenbaki argitaratzeko hartu zen konpromezuari erantzutera datoz. Oraingoan, 240 dira harpidedunak, eta azken ale honekin harpidetza gehitzea lortu nahi da. Laugarren zenbakiak *Gazteak eta euskara* hartuko du gaitzat, eta Atlas linguistikoa 5. zenbakiak.

Urkuluko urtegia

Gipuzkoan dauden urtegieta Urkulu da azaroaren amaieran iaz baino ur maila bajuagoa duen urtegi bakarra. Iaz kapazidadearen %60an zegoen bitartean, aurten %52,5ean dago, hau da, iaz baino %12 ur gutxiago. Iaz ez bezala, aurten Eskoriatzak ere Urkulutik jasotzen du ura. Bergarak ere ur gehiago jasotzen du, Eibarri ematen diona konpentsatzeko. Laster Oñatik eta Elgetak ere Urkuluko uraz hornituko dira.


Jaiotzak

Lizuar Uribarren Ane, azaroak 15.
 Monro Baquerín Cristina, azaroak 20.
 Arana Cid Altor, azaroak 20.
 Iturriaga-Etxebarria Uribebarrea Shella, azaroak 21.
 Lasaga Mendizabal Paula, azaroak 22.
 Otxoa Alberdi Uxue, azaroak 23.
 Mauri Ibabe Asler, azaroak 24.
 Diosdado Inza Eider, azaroak 25.
 Baquerín Elías Jon Andoni, azaroak 26.
 Del Pozo Murillo Imanol, azaroak 26.
 Valderrama Gonzalez Asler, azaroak 27.
 Martín Agreda Roberto, azaroak 27.
 Larrañaga Moreno Iker, azaroak 28.
 Barquero Garcia Kirian, azaroak 29.
 Merino Moro Kevin, azaroak 30
 Ugartetxea Kortabarria Jokín, urriak 1.
 Prat Lera Gorka, urriak 2.
 Uribesalgo Urzelai Eñaut, urriak 3.


Ezkontzak

Jose Felix Garcia & Garbiñe Palomero, urriak 1, zibilez.
 Juan Manuel Hormaetxea & M. Teresa Balzategi, urriak 1, zibilez.
 Serafín Vicente & Milagros Voguelras, urriak 1, zibilez.
 Jesus Javier Vicente & Antonio Nogueiras, urriak 1, zibilez.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
 Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Kontzesifio 2,
 Tfnoa: 79 14 06
 ARRASATE

beatriz
 oinetakoak eta
 poltsak

Erdiko kale II, Tfnoa: 79 14 33
 ARRASATE

SASKI NASKI

Lehiaketa

1990


OKENDO KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.
Banatzaile ofiziala

Jose Aranzabal



TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK




ASTE HONETAKO IRABAZLEAK

- ▲ Ainhoa Aranburu
- ▲ Elena Sanchez
- ▲ Haritz Kortabarria

J. URIARTE



Nor irteten da Arrasaten Olentzerorekin Gabonetan?



SASKI NASKI ZOZKETAKo opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.

ERANTZUNA:


Izena: Helbidea: Tfnoa:

☐ Kutsadura

Arrasate Kooperatibak, Deba Errekan produktu kutsagarriak isurtzen zizuztela eta jarritako isunari erantzunez, isurketok beste enpresa batzuenak direla jakin arazia dio Udalari. Hala ere, espedienteak aurrera egingo du.

☐ Jostailuak erosteko


Gabonak, Olentzero eta ERregeak ere badatozela eta, jostailuak erosteko sasoi horretan izaten den joera be-reziaren aurrean orientabide izan dadi, gidaliburua argitaratuko du Arrasateko Udalak.



Alde zaharra eraberritzeko egitasmoa onartu zen

Arizmendiarrrieta

Arizmendiarrrietaren omenez antolatutako *Egungo gizartea diruaren menpe* sariketan hauek izan ziren sarituak: Lehen mailan I. Arabaolaza, S. Arando eta G. Errastik eskuratu zuten saria. Ertainetako bigarren zikloan M. Uranga, I. Zabaleta eta I. Arresek eta Unibertsitate mailako saria, Asun Agirianok eskuratu zuen.



Ia aho batez

Hirigintza nagusi azken Osoko Bilkuran

Ez zen egon kontrako boturik Arrasateko Udalaren azken Osoko Bilkuran alde zaharra eraberritzeko Plan Berezia onartzeko orduan. Onespena behin behinekua izan zen, oraingoz Gipuzkoako Diputazioaren oniritzia falta bait da behin betikoa izateko.

Datozen zortzi urteetan Arrasateko kaleetako garbitasuna egiteko adjudikazioa, bestalde, Cespa enpresari eman zitzaion. Aurrerantzean Atxabalpeko garbiketaz ere arduratuko da.

Arrasate pasealekuan abuztuan aur-

kitutako harresia bere horretan gordetzeko asmoz, orube horretan eraikiko den etxearen etxabea erostea erabaki zuen Udalak. Altamira auzoko Azatza Auzoa kooperatibak, bestalde, utzi egin beharko dizkio lurrak Udalari Altamirako malda tinkatzeko obrak egin daitezen. Hamaika urtetan %14eko inteseekin, 450 milioiko kreditua hartzea erabaki zen. Hortik 92 Iturripeko kiroldegirako, 92 Udaletxearen berri-ztazpenerako, 35 ur sarerako, 200 frontoi-rako eta 33 hirigintzan erabiltzeko.

Adi!

INGELESA

Edozein maila

ORDUA: Goizeko 10ak eta 12ak artean
Arratsaldeko 2ak eta 4ak artean.

Aproposa : etxeakoandrentzat, langabetuentzat,
ikasleentzat, dendariantzat eta
ordu horietan libre dauden guztientzat

PROMOZIOZKO PREZIOAK



Araba Etorbidea 4,
Tfnoa: 79 01 32
ARRASATE

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Arrasateko taldea Etxezarreta inguruan

Etxezarreta eztabaidagai

Pilak batzeko kanpaina bultzatu Eguzkik

Deba Garaiko talde ekologistek euren kezka azaldu dute Arrasate eta Bergara lotzeko asmoz egin nahi den autobidea dela eta. *Mendia Bizirik, Eguzki, Eki, Amilotx, Aloña Mendi* eta *Txantxangorri* taldeek Arrasateko irteeran dagoen Etxezarretarainoko ibilaldia antolatu zuten igandean, arbola eta landare espezie asko eta aberatsak dituen paraje horrek Arrasate eta Bergara lotuko dituen autobidearen obrak egiterakoan jasan ditzakeen kalteetan eri-

tzi publikoaren atentzioa erakartzeko.

Arrasateko Eguzki taldeak, bere aldetik, erabilitako pilak jasotzeko sistema berria proposatu dio Deba Garaiko Mankomunitateari. Pilek dituzten merkurioa eta kadmioa zaborren bidez uretara joan ez daitezzen, Eguzkik informazio kanpainari ekin dio Arrasaten. Datozen sei hilabeteetan, hilero, Eguzkikoak dendaz denda joango dira, jendeak erabilitako pilak jasotzen, ondoren arriskurik barik birziklatzeko asmoz.

□ Euskararen hitzarmena

Udalak eta herriko 38 elkarteren artean izenpetu zenetik, hitzarmenarekin beste elkarte batzuk ere azaldu dute hitzartzeko asmoa. Horrela, asmo horri behar duen ohiartzuna emate aldera, abenduaren 19rako ekintza ofiziala antolatuko da, jendaurrean agertu dadin.

Arrasate Musikal eta Gorosarri

Asteburu lanpetua izan dute Arrasate Musikal eta Eskoriatzako Gorosarri Abesbatzak. Larunbatean Soraluzeako Parrokian izan ziren eta igande arratsaldez, berriz, Orioko San Nikolas elizan. Gorosarri, Arzamendi eta Olaizolaren obrak eta Vivaldiren *Gloria* eskaini zuten, eta Haendel-en *Aleluia*ren ondoren



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Ofora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelullitisa...


Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...

Lagun-Aro, Aslsa, Previsa, Caplsa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



Epelde

Idoia Alonso eta Andres Díaz
bergararrak irailaren 15ean ezkondu ziren.
Ezkon ondorengo bidaia Mexiko aldera egin zuten. Zorionak!



Aste honetako saiski naskiren irabazleak **Ainhoa Aranburu, Elena Sanchez** eta **Haritz Kortabarria** izan dira. Ainhoaren ama etorri zen saria jasotzera, berak Bilbon ikasten duela eta. Eta Haritz, berriz zintzo joan zen Okendo Kirolak-era, argazkian agertzeko. Elenak aldizkariaren bidez jakin beharko du saria egokitu zaiola.

Este mensaje notiene mas
este dia 18 de marzo de 1:
pertenceis a la Empresa N
dia en el dia en que est
Os dejamos unos pocos
deseamos que seas muy t
o autogiro u otros reli
ja en la Luna, o en O

Roneo botaberria eraiki zutenean, 1958an, esperantza handiak zeuzkaten bertako langileek, eta agiri berezi bat sartu zuten kutxan, urte asko beranduago irekitzean beste garai bateko biztanleek euren garaia ezagutu ahal izan zezaten. Orain, agiria agertu egin da, idatzi zutenek uste baino denbora gutxiago pasa eta gero, eta barregarri gertatzen dira ematen dituzten azalpenak eta aholkuak. Testua *Besteek esana* sailean daukazu osorik irakurtzeko moduan ▶

L

ASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



Enrike Alonso Txirrindulari arrasatearra Lotus etxearekin ari da denboraldi honetan. Eta erloju-etxe horrek, erlojuaren barruan bere irudia jarri du. Propaganda ederra, **◀** bientzat erel!

Izen
PROPIOAK

● **ALBERTO ERRAZTI**, 29, Durangon bizi den mondragoetarrak Bizkaiko bira mendigaliburua argitaratu berri du Sua argitaletxean. Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatua, Durangoko Institutuan Euskara eta Euskal Literatura irakasten ditu. Hamar urtekin joan zen Arrasatetik.


● **ASUN AGIRIANO**, 27, arrasatearra, Arizmendiarieta sariketaren irabazle izan da, Unibertsitate mailan. Asunen lanaren izenburua *Poderoso caballero Don dinero* da. Filosofia ikasketak burutu zituen Zorroagan, eta orain langabezian dago.

● **AMAIA PEREZ ALBENIZ**, 23, arrasatearra, Zaldibarko futbito txapelketan jokatu duen lehen neska izan da. Kriskibaldan taldearekin jokatu zuen lehengo asteburuan, ikusten zegoela jokoan sartuaz. Amaiak golak sartzea ere lortu zuen. Berak egin duenak neska gehiago ere anima ditzala.



Jose Luis Urzelai eta Beatriz Arzamendi Arantzazun ezkondu ziren uztailearen 21ean. Zorionak bioi, eta urte askotarako! **▶**

Epilade



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia arrain freskoa eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate, 70 95 94



Otalora 2, ARRASATE

Erritmoaren bidez gorputza lantzen

Gorputz txiki, zaildu eta finak dituzte. Urte askotako lanaren ondoren, zaharregi dira neskek 18 urterekin gimnasia erritmikoan jarraitzeko.

Kiroldegian gimnasia erritmikoa egiten dute. Esibizioetako neskekin amets egiten dute, eta haiek bezalako izango dira, noizbait.


Kiroldegian, beste kirol batzuen artean, euren gorputza gimnasia erritmikoarekin zailtzen duten lagun batzuk daude. Hogeitamar dira, denak emakumezkoak, eta Arantzazu eta Estherrek entrenatzen dituzte, astean hiru egunetan, bi orduz. Kirol berezia izaki, oso gaztetan hastea komeni da, eta sei urteak beteta edukitzea gomendatzen den arren, Arrasateko taldean badira 5 urtekoak ere. Berez, hamabi urte oso berandu da gimnasia erritmikoan hasteko, adin horretarako gorputza egina izaten delako, eta konpetizioan jardun nahi bada, txikitatik hartu behar da neskatala.

Neskatala esan dugu, izan ere oso gutxi bait dira kirol honetan hasten diren mutilak, eta hasi diren bakanei ere arrotz egiten zaie mugimendu horietara

ohitzea, edo inguruko neskek barre egiten diete. Nesken kirola dela esan daiteke, beraz, eta urte kopuru mugatua hartzen duen kirola gainera. Hamazazpi urterekin ez da gehiago hobetzen, eta teknikan hobetzea lortu arren, fisikoki flexibilitatean eta galduaz joaten bait dira, eta gainera mintzen hasten dira, bizkarreko mina, lesio eta kolpeen ondorioak, igarri egiten dira. Hori dela eta, kontu berezia jartzen da lesiorik egin ez dadin, eta neskatalen bizkarrari begiratu egiten zaio, midikuen azterketak egiten dira, eta bertako prestatzaileez gain, beste batzuegana ere jotzen da.

Gaitasun bereziak

Gimnasia mota honetarako gaitasun bereziak behar dira, "Koordinazioa, oreka edo ekilibrioa, baina batez ere flexibilitatea edukitzea behar da. Indarra ere ona izaten da, baina landuaz joaten da, saltoak egiten ikasi ahala, hartzen du gimnastak indarra eta hanketako potentzia".



Entrenamenduak astean hiru egunetan izaten dira.

Orainartean ez da aukeraketa berezirik egin izan, eta gimnasia egiteko gogoz zetorrenari baietza ematen zitzaion. Hala ere, aurrerantzean, aukeraketa egiteko asmoa dute, Arrasateko maila piska bat igo eta konpetizioan hasteko, eta gimnasia erritmikoaren inguruan jende gehiago mugidarin. Eskolaz eskola joango dira aukeraketa probetarako neskek gonbidatuaz.

"Txikitatik hartu behar da umea, sei urterekin edo; hamabirekin berandu da hasteko"

Luze, luze

Goiz hastea eskatzen duen kirola izan eta berriz ere oso gaztetan uztera behartzen duen kirola den arren, prestakuntza motelekoa ere badela esan be-

har. Zaila eta poliki ikasten dena, ez beste kirol batzuk bezala. "Saskibaloian, hila-bete batzuetan jar zaitezke jokatzen, nahiz eta oso ondo ez egin. Gimnasia erritmikoan bi urte behar dira aparato gabe gorputza landu eta oinarri bat hartzeko, esku askeak esaten zaiona hartzeko, eta guzti hori berezko baldintza onak dituen neska izanda". Horregatik erizten diote hain garrantzitsu txikiak ondo lantzeari, eta orai dauzkaten 5 urtekoak oso ongi datoz alde horretatik, "gorputzez arinak izateaz gain, buruz ere argiak eta biziak izateak asko esan nahi du eta".

Guzti horri, eta prestatuntza bereziari begira, bi taldetan antolatzen dituzte neskatalak: lehenik adinari begira banatzen dituzte, eta zortzi urtetik gorakoekin talde berezia egiten dute. Talde horretan bertan ere, gaitasunaren arabera banatzen dituzte, prestakuntza zehatzagoa izan dadin. Txikitxikiarekin, erritmoa eta psikomotrizitatea lantzen da batez ere; batzuekin arin ikusten da ez direla konpe-

tizio mailara helduko, baina hori ez da helburua- Arrasatekorik ez dabil eta oraingo lehia ketetan-, azkenean flexibilitatea lantzen saiatzen gara, joku bidez landu eta gustora ibili daitezela. "Denak ezin dira maila berean landu, onak direnak aspertu egiten direlako eta erraztasun gutxiago dutenekin baztertuta sentitzeko arriskua dagoelako. Umeak, azkenean, ez dira ohartzen euren gorputzaren mugez".

Entrenamenduetan, ballet apur bat egiten da hasieran, gorputzaren jarrera hartzeko. Ondoren, berotzeko hainbat ariketa egiten da, flexibilitatea piska bat lantzeko ariketa batzuekin baitan. Teknikari ere garran-



Bost urterekin hasten dira gimnasia erritmikoa lantzen

jartzen saiatu badira ere, ez da orainarte ezer lortu. Futbitorik ez dagoenean bakarrik sartzen dira kantxan, eta joan den urtean alde batetik bestera ibiltzen ziren txikienekin, trantzituetan eta entrenatuaz. Kiroldegian jangela kendu dutenetik, mahaiak kendu eta zorua garbitu dute entrenatzaileek eurek lokala erabili ahal izateko.

Gurasoen aldetik ez omen da arreta handiegirik ikusten: kirola egiten du, ongi pasatzen du eta gainera ordubete okupatua du, "pozik etortzen dela eta hori aski dela iruditzen zaie". Hilean 1500 pta kostatzen da, eta deialdi zabalagoa egin eta jende gehiago hartzen dutenean kirol eskolatan sartzeko asmoa dute, ume gehiago bildu dadin.

"Koordinazioa, oreka eta flexibilitatea dira behar diren gaitasunak"

tzia ematen zaio, saltoak, pausoak, etab. eta oraintxe hasi dira aparatuekin lan egiten.

Baldintzak, instalazioak

kiroldegia herriaren erdigunetik aldentuta egoteak atzera botatzen du jende asko, eta garraio bidea

Ekitaldi berezia

Arrasaten ez dago mailarik, eta beste leku batzuetakoan aldean, hasi berriak dira. Gimnasia erritmikoa telebistan ikusten dugunean, eta gorputzarekin egiten dituztenak ikusita, txundituta geratzen gara. "Hala ere, hurbilekik ikusteak askoz ere zurrara handiagoa egiten du", diote neskek entrenatzen dituzten bi lagunek. Aurrerantzean Arrasaten ere mugimendu handiagoa sortu nahi dute eta gimnasia erritmikoko erakusaldia antolatu dute abenduaren 16an, Musakolako kiroldegiko kantxan. Buskal Herriko lau lekutatik etorriko dira, konpetizio mailan sartuta daudenak denak, 50 neskatila guztira. Leioa, Gasteizko Oskitxo, Bergarako Artznoa eta Eibarko Ipurua taldeetako neskek etorriko dira erakusketa ematera, eta Arrasateko norbait ere izango da partaide. Horrekin, gimnasiaren inguruko giroa piztu nahi da. Arrasateko taldeari konpetizio mailako jarduna emateko.


**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE


DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia iraultuko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaiolako Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aidi berean, erabilerrazak.
- Miliroi berde koloreko zuntz-laruzko azalak, 24 kilatetako urrez sutan eginak estapanzioekin.
- Landare-hariz jositako pieguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokomposizioa bi zutabetan egin, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurti eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditurik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

DICCIONARIO AMAIA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



**OBRA BEREHALA
JASO
NAHI BADUZU,
DEITU
94 - 445 46 89
Tfnora.
(ARANTZA)**

**Euskara ikasteko
erabili beharreko obra**

Ernesto Amaia Argitaletxea

Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO

Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

**LASTER PREZIO
IGOERA**




Mina ere bai

Kolpe baino haundiagoak gertatzen dira

Zaldibarko futbito txapelketa arriskutsua dela pentsa daiteke. Argazkikoa okerdura bat besterik ez da txapelketa definitzeko ez oso esanguratsua.


Horrelakoak gertatzen direla egia da, baina, txapelketa, hori baino gehiago da: taldeen arteko lehia, ikusleen artean sortzen den girotxoa, garaileen poza eta galtzaileen tristurak...dena dela, Luis Mari Urrutiak, okerdura egin zuenean sekulakoak eta bi ikusiko zituen.



IKATZ-EN DITUGU
AZKEN ARGAZKI-MAKINA ETA
BIDEO-KAMARA BERRIAK SALNEURRI EZIN
HOBEAN, GURE ARRASATEKO IKATZ
DENDAN HIRU HILABETETAN INTERESIK
GRABE ORDAINTEZEN BAITA.
IKATZ-EKO EGAZKINAREN ATZETIK
JOAN ZAITEZTE!

IKATZ

IKATZ ARGAZKI ETXEA
ITURRIOZ · 8 · 770401
ARRASATE



ILLARRAMENDI


Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

ZAPATIDOS

Gabon hauetan moda
erregalitzen dugu

Olarte 9, Tfnoa: 79 14 65
ARRASATE



LANTEK

Informatika teknikoa

Basabe poligonoa, C 1,

Tfnoa: 79 66 21

ARETXABALETA

A taldea

	Partidak				Golak		Pkt.
	Ubet.	Uab.	Abs.	Gald.	Alde	Ark.	
Sumin. Ugarte	9	8	0	1	52	16	16
Golfos Persicos	9	7	2	0	51	14	16
Bizkorrak	9	8	0	1	44	20	16
Zortzikin nahiko	9	7	0	2	60	29	14
Autovia patutia	9	5	1	3	32	31	11
Potrozorri	9	5	1	3	28	29	11
Mutikotes	9	4	0	5	27	23	8
Kakajauri	9	3	2	4	19	34	8
Cañ. Pto. Urraco	9	2	3	4	23	23	7
Ugarixoak	9	2	1	6	28	42	5
Ezkinako ontzak	9	1	2	6	18	39	4
Yokese	9	1	2	6	17	36	4
Bayern de Leniz	9	1	1	7	26	52	3
Bar Alcalde	9	1	1	7	25	39	3
Total	126	55	16	55	450	450	126

B taldea

	Partidak				Golak		Pkt.
	Ubet.	Uab.	Abs.	Gald.	Alde	Ark.	
Zuloak	9	8	0	1	61	22	16
Arrasate Kirolak	9	7	0	2	47	27	14
Los Heredia	9	6	1	2	61	23	13
Kriskibalda	9	6	1	2	50	25	13
Laso Arregi	9	6	0	3	45	26	12
Fut. Club Lobo's	9	5	1	3	32	38	11
Toki Eder	9	5	0	4	42	49	10
La ira de Odin	9	4	1	4	45	33	9
Okendo Kirolak	9	3	1	5	40	48	7
Aizpun bila	9	3	0	6	35	39	6
El Regreso	9	2	1	6	35	53	5
Solano 90	9	2	0	7	34	49	4
Resakas	9	2	0	7	27	68	4
Gimnasio Saioa	9	1	0	8	12	66	2
Total	126	60	6	60	566	566	126

C taldea

	Partidak				Golak		Pkt.
	Ubet.	Uab.	Abs.	Gald.	Alde	Ark.	
Alperrak	9	9	0	0	72	25	18
Fosforos	9	8	0	1	69	32	16
Pepelus	9	7	0	2	39	29	14
Artano	9	5	2	2	51	30	12
Zelai	9	5	1	3	56	34	11
Bar Kajoi	9	5	1	3	46	27	11
Sannan Hussein	9	5	1	3	31	25	11
Diego Antonio	9	5	0	4	63	37	10
Kannabis boys	9	4	1	4	50	42	9
Los motz	9	3	0	6	40	49	6
Neptuno	9	2	2	5	27	61	6
Steaua del grifo	9	2	2	5	22	49	6
Bacilona	9	1	2	6	34	56	4
Muru Barren	9	2	0	7	24	46	4
Danak lagun	9	1	1	7	30	50	3
M.G.M.	9	1	1	7	13	75	3
Total	144	65	14	65	667	667	144

D taldea

	Partidak				Golak		Pkt.
	Ubet.	Uab.	Abs.	Gald.	Alde	Ark.	
Argi ibili	9	9	0	0	89	23	18
Potroak	9	7	0	2	48	32	14
Artzanko's	9	6	1	2	46	21	13
Adelaida	9	6	0	3	52	23	12
Sisepuede	9	6	0	3	39	15	12
Camerun's	9	5	1	3	51	25	11
Babarias	9	4	2	3	31	36	10
Gau azkenak	9	5	0	4	29	21	10
Balaikae	9	5	0	4	28	36	10
La ban. de Pepe	9	3	2	4	33	40	8
Rayo Vatika-no	9	4	0	5	34	42	8
Avinagraos	9	3	1	5	26	38	7
Inter de alimañas	9	2	0	7	21	54	4
B.B.V.	9	1	1	7	17	65	3
Gastaos	9	1	0	8	23	63	2
Sukumu.-Aterpe	9	1	0	8	14	48	2
Total	144	68	8	68	582	582	144



OMU
ZERAMIKAK

• Biltegia: Meatzerreka z/g, Tfnoa: 79 14 28
• Erakusketa: Otalora 1, Etxabea, Tfnoa: 79 07 20
ARRASATE

KAJOI

TABERNA

Erdiko kale 22,
ARRASATE



Zaldibarkoa bezalako txapelketa batean, protagonismoa taldeek eurek eramaten dute. Horrenbeste taldek jokatu behar dituzten partiduen antolaketa egin dutenak normalean izkutuan gelditzen dira. Hori gerta ez dadin, hementxe alboan dituzue Zaldibarko txapelketa posible egin dutenak.




Strategi Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

E maitzak

A taldea

Suministros Ugarte 6	Cañon. Pto.Urraco 3
Ezkiñako ontzak 0	Golfos Persicos 9
Zortzikin nahiko 5	Kakajauri 0
Bizkorrak 0	Autovia patutia 3
Yokese 7	Bayem de Leniz 6
Mutikotes 6	Ugarixoak 3
Bar Alcalde 2	Potrosorri 6

B taldea

Lobo's 5	Solano 90 4
Arrasate Kirolak 5	Zuloak 4
Laso Arregi 2	Los Heredia 5
Toki Eder 6	Gimnasio Saioa 0
La ira de Odin 4	Aizpun Bila 2
El regreso 7	Okendo Kirolak 4
Resacas 3	Kriskibalda12

C taldea

Sannan Hussein 5	Steaua del grifo 1
Diego Antonio 7	Alperrak 9
Fosforos 2	Bar Kajoi 5
Kannabis boys 1	M.G.M. 2
Zelai 7	Muru Barren 3
Danok Lagun 4	Neptuno 6
Pepelus 5	Bacilona 1
Artano 6	Los Motz 5

D taldea

Ptroak 2	Argi Ibilii 11
Avinagraos 3	La Banda de Pepe 7
Sisepuede 9	Gastao 2
Camerun's 2	Adelaida 5
Inter de alimafias 3	Babarias 6
Artzanko's 2	Rayo Vatika-no 5
Gau azkenak 0	Balake 4
B.B.V. 0	Sukumurus- Aterpe 1



OPEL
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.
Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

EL Libretón

BBV

Txutak

MOTORRAK BEROTZEN

Sorpresa ugari eman ditu asteburuko ihardunaldiak Zaldibarko futbito txapelketan: lehen taldean Autovia Patutia taldeak irabazi egin zion ordura arte partidurik galdu ez zuen Bizkorral taldeari. Bigarren taldean Arrasate Kirolak-ek, bigarrenak, Zuloak, lehenengoari, irabazi zion; eta gauza bera egin zuen Los Heredia taldeak Arrasate Kirolak-en aurkako partiduan. Hirugarren taldean Diego Antonio-k Alperrek-ekin galtzea nor-

mala da, baina ez 7 eta 9ko emaitzaz; Bar Kajoi-k Fosforos-i, ordura arteko liderrari irabaztea ez da hain normala, gainera talde horretan MGM taldeak lehen garaipena lortu zuen Kannabis Boys taldearen aurka. Azkenik, laugarren taldean, lehen sailkatuak bigarrenari irabaztea normala da, baina ez 11 eta 2ko emaitzaz. Aipamen bereziena Sukumurus Aterpe taldearentzat, txapelketako lehen bi puntuak lortu zituen eta, BBV-ren aurkako partiduan.

Badirudi gauzak berotzen ari direla, orain arte erdi hoztuta egon diren talde batzuen motorrak berotzen.

Beñardo Kortabarría

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Suministros Ugarte	Bar Alcalde
Ezkiñako ontzak	Cañon Pto. Urraco
Zortzikin nahiko	Golfos Persicos
Bizkorral	Kakajauri
Yokese	Autovia patutia
Mutikotes	Bayem de Leniz
Potrosorri	Ugarixoak

B taldea

Lobo's	Resacas
Arrasate Kirolak	Solano 90
Laso Arregi	Zuloak
Toki Eder	Los Heredia
La ira de Odin	Gimnasio Saioz
El regreso	Aizpun bila
Resacas	Okendo Kirolak

C taldea

Sannan Hussein	Artano
Diego Antonio	Steaua del Grifo
Fosforos	Alperrek
Kannabis boys	Bar Kajoi
Zelai	M.G.M.
Danok Lagun	Muru Barren
Pepelus	Neptuno
Los motz	Bacilona

D taldea

Potroak	B.B.V.
Avinagraos	Argi Ibilí
Sisepuede	La Banda de Pepe
Camerun's	Gastaos
Inter de alimañas	Adelaida
Artzanko's	Babarias
Gau azkenak	Rayo Vatika-no
Sukumurus- Aterpe	Balaíke

UGARTE S.A.

Lantegi hornigaiak

Arrasate Pasealekua 35-37 Tfnoak: 79 23 00 / 79 83 96 FAX: 79 34 12

ARRASATE



AURORA-POLAR

Aseguruak

Mikel Lasa agentzia

Zerkaosteta 15 etxabehea, Tfnoa: 77 00 94, Faxa: 77 10 74 ARRASATE



Jira eta Mamia

Jira Bulahe

Emakume saharaiarraren abangoardian

Jira Bulahe, Saharan jaio zen duela 26 urte. Jakina denez, lurralde hori Marokoren menpean dago aspalditik. Beste saharaiar askoren bezala, Jira bere herritik kanpo bizi da, errefuxiatu kanpamendu batean. Injinerutza ikasketak eginda dauzka, eta munduan zehar dabil saharaiar herriak askatasuna lortzeko aspalditik daraman borrokaren berri eman eta elkartasun bila.

— Exilioan bizi den pertsona batek, zer egin dezake bere herriaren alde?

— Bere herritik kanpo bizi den edonork gauza asko ditu aurka. Pentsa zauden tokia ez dela zuri dagokizuna, ohiturak, eguraldia, eta kaleko giroa desberdinak direla. Saharaiarren kasuan faktore guzti horiei, gerraren ondorioak gaineratu behar zaizkie. Guzti horrek edozein pertsonaren borondate eta jarrerak alda ditzake.

Dena dela, gauza asko egin daitezke. Zauden edozein toki edo lanetan herriari laguntzeko konpromezua hartuta daukazu, herri saharaiarraren helburuak lortu arte, ez etsitzekoa.

— Herri saharaiarrak askatasun bila daraman

borrokan, zer egin du emakumeak?

— Errefuxiatuen kanpamenduetan burutzen diren ekintza gehienak “Emakumeen Elkartasun Nazional” erakundeak antolatu ditu, une berean erakunde eta emakume bezala erantzunez. Erakunde hau, iraultzaren printzipioei eutsi eta hedatzen arduratzen da, kanpamenduetan antolatze lanak eginaz

— Islam-ek oztoporik jartzen dio emakumearen garapenari?

rraren egoera?

— Ikuspegi desberdin asko daude. Alde batetik esan behar da emakume europarra aurreratua dagoen gizarte batean bizi dela, gure herria Hirugarren Munduan dagoen bitartean. Gizarte aurreratu hori iraunkorra bada ere, badiu bere arazoak, industrializazioak sortzen dituenak. Arazo horiek eta guk ditugunak desberdinak dira, geure helburua bete arte borrokatu behar bait dugu.

— Mundu arabiarraren

suan kanpotik etorritako sarraldia kontuan hartu behar da, ondorioz bereizkeria eta sarraskia iritsi zaizkularik. Hirugarren munduko edozein emakumek ingurugiroaren baldintzak ere jasan behar ditu, guk jasatzen ditugun bezala. Errefuxiatuta gaudenon errealitatea ere desberdina da, behar gehiago dauzkagu eta urruntasunak baldintzatzen gaitu.

— Azkenaldiko integrisimo korronteak izan du eraginik zuen herrian?

— Ez, gure artean ez dago integrisimo joerarik. Erlijio arazoak ez gaitu bereziki arduratzen, ez da bigarren mailako gauza, baina gure eguneroko errealitatea beste bat da, burujabetasunaren aldeko borroka, hain zuzen. Erlijioa hartzen dugu, eusten diogu, eta erakutsi egiten dugu.

— Zer da emakume saharaiarraren gauzarik aipagarriena?

— Herri batek bere askatasunagatik daraman borrokan era berean ama, emazte, arreba, eta laguna izatea. Zoritxar handiak ezagutu eta ez etsitzea ere aipagarria da. Sekula ez nekatu, herri saharaiarraren borroka ez duelako denborak baldintzatzen, garaipenak baizik.

“Gestio politikoa eta sinesmena bereizten saiatu gara”

— Erlijioa oztopo izatera iritsi daiteke, baina saharaiarren kasuan horrelakorik ez da gertatu. Erlijioa kulturaren zatia denez, horrelaxe irakasten da. Sinetsi edo ez, pertsona bakoitzaren kontua da, Estatuaren erakuntza islamikoa bada ere. Zentzu horretan, gestio politikoa eta sinesmena bereizten saiatu gara, gauza desberdinak dira eta.

— Nola ikusten da zuen herritik emakume europaa-


barruan, diferentziarik bada emakume saharaiarra eta gainontzekoen artean?

— Orokorki esanda, emakume guztiak helburu berdinegatik burrukatzen dugu. Burrukatzeko eran aurki daitezke desberdintasun bakarrak, herrialde bakoitzeko ezaugarrien arabera, gizarte bakoitzeko eboluzioaren arabera, aurkitzen diren oztopoen arabera, etab. Emakume saharaiarren ka-

Eskubaloian azken partidua galdu

Joko mailari eutsiaz gero, taldeak gauza politak egingo ditu

Arrasate Kirolak Eskubaloia Taldeak ezin izan zuen garaipenik ekarri, Donostian, Bidebieta taldearen aurka jokatu zuen partidutik. Zorte txarragatik izan ez balitz, mondargoetarrek garaipena lortuko zuten seguraski, baina baloi batzuetan ez ziren finegi ibili eta azkenean galdu egin zuten. Partidua hasieratik oso parekatua izan zen, eta lehen zatian markagailuan joko parekotasuna nabaritu zen. Lehen zatiko une batean, 20. minutuan gutxi gorabehera, arrasatearrek hiru goletako abantaila lortu zuten, baina azken minutuetan donostiarrek hobeto ari izan ziren eta atsedendian emaitza 10 eta 10ekoa zen.




Bigarren zatia antzerakoa izan zen, baina oraingoan abantailak donostiarren aldekoak izan ziren. Arrasate-

ko taldeak erantzun egin zuen eta partiduari amaiera emateko zazpi minutu besterik ez zirenean gelditzen,

aurrea hartu zuten markagailuan. Huts dextente egin ziztuzten arrasatearrek hortik aurrera eta ondorioz, Bidebieta taldeak, erraztasun gehiago izan zuen markagailuan aurretik joateko. Parekotasun giroan joan ziren partiduko azken minutuak ere, baina donostiarrentzat hobeak izan ziren eta emaitza borobiltzea lortu: Bidebietak 21, Arrasate Kirolakek 19.

Partidu horretan Arrasateko taldeak ez zuen zorte handiagorik izan, baina joko mailari eusten badio eta partiduetako azken minutuetako urduritasuna gainditzeko gauza bada, Arrasate Kirolak taldeak denboraldi bikaina buru dezake.



La Coruñara gonbidatuta

Beatriz Jimenez, eskalatzaille arrasatearra, kirolaren gailurrera iristen ari da. Duela urtebete, ia beharturik, Euskadiko Txapelketan parte hartu eta irabazi egin zuen. Ustegabeko emaitza izan zen hori, eta ordutik makina bat frogetan parte hartu behar izan du. Oraingoan, La Coruñara gonbidatu dute Beatriz Jimenez, eta zubi guztia bertan emango du. La Coruñan Estatu osotik joandako eskalatzailleak ari izango dira, ostiralean entseiatutako igoera batean, eta larunbatean ezagutzen ez duten beste batean. Lehiaketaren irabazlea erabakitzeko, bi frogen arteko puntuazioa izango da kontuan. Euskaditik, Beatriz Jimenezek aparte, beste bi gizon joan dira lehiaketa horretara.

LURRINGEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULUAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

J. ANGEL

LANGARAN


Pilotari izan nahi zuen gizona

Jose Angel Langaran, agian "Txikito de Benares" izanez ezagunagoa, mutiko koskorra zenetik pilota girora murgildu zen, horixe bait zuen gustokoen. Urteak pasatu ahala entzunak izan dira Elosuko Reyes-ekin burutu dituen norgehiagokak. "Gazteluondora joaten nintzen txikitan, han entrenatzen bait zuen Bolinaga zenak. Ni eta beste mutiko pila bat han ari izaten ginen, egun guztia pilotan, jo eta sua. Orduan besterik ez geneukan eta".

1954eko martxoaren 3an jaio zen mutil honek zaletasun handia izanda ere, ezin izan zuen profesional izateko desioa bete. Dena dela, "Txikito de Benares"ek ez du inoiz etsi, eta ahal duenean mutikoekin jokatzeaz gain, Elosuko Reyes-ekin jokatutako partiduek ospea eman diote. "Lehen aldiz jokatu genuenean nobedade handia izan zen jendearentzat".

Lehen partidu hura jokatu zutenetik Elosuko emakumeak eta "Txikito de Benares"ek hamabost aldiz jokatu dute, betidanik emaitza oso parekatuak suertatu zaizkielarik. "Hamabost partidu jokatu ditugu elkarren aurka, eta horietatik hamabi nik

PODIUMA



neuk irabazi ditut, eta beste hirurak berarentzat izan dira. Diferentzia handia badirudi ere, ez da horrenbestekoa, beti parekatuak izan direlako".

Pilotalekuetan ikusten den jokoa ez zaio gehiegi atsegin Jose Angel Langarani, profesionalek, ez dute eta ezer arriskatzen. Zentzu horretan gehiago gustatzen zaizkio berak eta Reyes-ek jokatzen dituzten partiduak. "Gure partiduetan joko asko ikusten da, Reyes-i gehien gustatzen zaion jokaldua botibolea da eta. Niretzat, ordea, politena hormabikoa, eta gainera hoberen ateratzen zaidana. Ondo ezagutzen dut Reyes, eta haren jokaldi arriskutsuena botibolea bada ere, hori baino gehiago bere irabazteko gogoia izaten da. Norbait hulsean utzi ahal izanez gero ez, du barkatzen".

Arrasateko pilotariei begira "Txikito de Benares"ek badu faboritorik ere. "Niri Inaki Kortaren jokoa gustatzen zait, beldurrik gabe aurrekaldean jokatzen duelako, pilota ederki moztuz eta indar handiz gainera."

Atletak oso ondo

Pasa den asteburuan Donostian burututako frogetean, atleta arrasatearrek emaitza onak atera zituzten. Hogei izan ziren Arrasatek Donostiara joan ziren atletak, eta egindako aipagarriena ahuxe litzateke: Altuera jauzian, Alberto Iriartek urtebete lesionatuta egon ondoren, 1.90metro egin zuen salto, eta 2 metroak gainditzeko zorian egon zen. 300 metrotako lasterketan Gabriel Saavedrak, 38 segundu eta 6 hamarreneko marka egin zuen, Euskadiko txapelketarako minimoa lortuz. 200 metroetan, Aitor Arnaizek 23 segundutako marka egin zuen, garrantzi handikoa denboraldia orain gutxi hasi da eta. Emaitza horien arabera, aurtengo denboraldi bikaina izan daiteke arrasatearrentzat.



Central Jet-ek irabazi

Justu samar izan bazen ere, Central Jet Euskal Air saskibalo taldeak garai-pena lortu zuen joan den larunbatean Donostiako Atletikoren aurkako partiduan, 93 eta 92. Larunbat honetan ere Txus Brizuelaren mutilek etxean jokatuko dute, ohi den bezala, larunbatean arratsaldeko 6etan, Patronato taldearen aurka. Txapelketaren erdia burutzera doa eta mondragoetarrek partidu hori irabaztea lortuko balute, hirugarren geldituko lirarteke sailkapenean.

Elurraren egoera

Gure artean ez du oraindik elurrik egin, baina Arrasaten egongo dira eski zaletuak eta horregatik ondorengo informazioa. Kantantxu eta Astungo pistetan 30 zentimetro elur daukate, elur hautsa. Oraingo Jaca inguruko pisten egoeraren berri besterik ezin dezakegu eman, baina datorren astean informazio hau zabalago eskaini nahi genuke.

MIREN & ZURINE

Bitxi-Diseinua


Otalora 4, Tfnoa: 77 13 57 ARETXABALETA

- Urre eta Zilarrezko konponketak.
 - Kateak, belarritakoak, eraztunak, eskumuturrekoak, etab. konpontzen ditugu.
 - Zure bibixiak eraldatu eta berritzen ditugu.
 - Baita trukatzeko ere
- %5eko beherapena. Abenduaren 8tik, urtarrilaren 8ra.

Gary-ri blusa gelditzen zaio

Tesia: zerbaiten atzetik gabiltzanean, ibiltzea bera da lortu nahi dugun hori lortzea baino aberasgarriagoa. Kavafis-en metafora ezagunean, Itakarako bidea hartzean ez genuke iristeko presarik eduki behar, bidaiari zehar ikusi eta ikasitakoak egingo bait gaitu jakintsu. Iristean Itakak liluratzen ez bagaitu, ez gaitezen tristetu, bidaiak eman digun jakinduriari esker aisa ulertuko bait dugu Itaka aitzakia besterik ez zela, bidaiari ekiteko aitzakia.

Antitesia: ahaleginetan iharduteak frustrazioa dakar, nekea eta barne-hutsunea. Utopiak espejismo hutsak



dira, helburua lortu ez izanak ahalegin berri baterako gogo ahuldu egiten du. Ibili luze eta antzu baten ondoren etxera itzuli eta abiatzeko orduan utzi genuena berraurkitzean, berehala ulertuko dugu ibiliaren zentzugabetasuna.

Alferrik ibili gara, lehendik ezagutzen genuena bait zen aurkitu nahi izan duguna.

Sintesia: Gary Mooren "Still got the blues" diskoa. Urte luzeetako bidaiari abiatu zenean kitarraren paradisa iritsi nahi zuen Garyk.

Atzean utzi zituen B.B. King eta John Mayall, hormako posterrean Jimmy Hendrixek egiten zion deiari erantzuteko. Joan zen eta ibili zen, gogor ari izan zen bere kitarrari soinua berriagoak ateratzeko ahaleginetan. Bai eta

aukeratuen paradisa iritsi ere. Paradisan ez zuen, ordea, betikotasunik aurkitu eta urte askoren bueltan etxera itzuli zenean, han berraurkitu zituen Mayall eta King, han berraurkitu zuen bluesa. Sentipen gazi-gozoz aitortu zuen oraindik bluesa gelditzen zitzaioela, *I still got the blues for you*.

Baina ibiliak aberastua zuen Gary, bera asko oharitzen ez bazen ere. Eta disko hura egitean lehengo blues zaharrari ikasitako gutzia erantsi zion, kantu-sorta mirresgarria sortuz. Nota bakoitzari zerion jarioan aurki zitezkeen lehena eta oraina, indarra eta sentimendua, etxekoa eta urrutikoa. Mayall eta Itaka, azken finean.

Mikel Urizar

KANTALDIA

Gontzal Mendibil eta Pantxoa eta Peio



- Abenduak 14, ostirala
- Gaueko 10.30etan
- Amaia antzokian
- Sarrera 500 pta.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

“Euskara, zugaran da gorderik mendez-mende egoki euskaldun gogoa”

Gizakiaren ezau-garririk handi eta ederrenetarikoa dugu hizkuntza. Hizkuntzaren bidez, bereziki, bideratzen ditugu geure bizipenak, gogoak, beharrak; esan dezakegu hizkuntzak berak moldatu egiten gaituela, hau, da, izan garena eta garena ulertzeko ezinbesteko tresna bihurtzen zaigula hizkuntza.

Bestalde, zer esanik ez dago, hizkuntza bera hiztunek moldatzen dute, mendeak joan mendeak etorri euren beharretara etengabe egokitu-tuz. Zenbat eta behar gehiago bete, orduan eta abe-

ratsago.

Euskeraren kasura etorrituz, euskaldunon hizkuntza ez da inoiz botere-hizkuntza izan, izan duen botere bakarra hiztunek eman dioten baliolia izan da. Hau da: euskeraren herri honetan hainbat pertsona bizi izan dira euskeraz, euskeraz ulertu dute euren existentzia, euskaldun izatea eta pertsona izatea gauza bera izan da eurontzat.

Mundua mundu denetik, ordea, izan dira, diferentziak pertsonen eta hizkuntzen artean. Paperetan berdintasuna, anaikidetasuna, elkartasuna eta beste hainbat *-tasun* idazten dituzten betidanik

boterean daudenek, praktikan, ordea, *-keriak* bihurtzen dituzte guzti horiek: aurkakeria, krudelkeria, norberekoikeria...

Eta horrela iritsi gara gizarte “moderno” honetara. Ekonomiaren ikuspuntutik begiratzen badugu, hizkuntza bakar batekin nahikoa du munduak; eta hizkuntza hori, jakina, ingelesa izango da, boteretsuek horrela izan dadin nahi dutela dirudi eta: urte (mende) batzuk barru denok eta dena ingelesez.


Arrazoiaren ikuspuntutik, berriz, hizkuntz ekologia izan behar dugu begibistan. Hau da: hizkuntza bakoitza bere

tokian eta hizkuntza bakoitzarentzako toki bat.

Arrazoiari jarraituz, ulertu egin behar dugu hizkuntzak herriak eraikitzen dituen ondareak direla eta guk ez daukagula eskubiderik horrenbeste mendetan eraikitakoa hankaz gora botatzeko, bertan behera uzteko.

Elebakar euskaldunik geratzen ez denez, euskaldun izan nahi duenaren aukera konszientea da. “euskalduna naiz pertsona izateko oso modu duin eta orijinal bat delako”. Eta kitto.

Atalataikoan



Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Rafael Agirre

Rafael Agirre
Gorosarriko Lehendakaria

Zazpi urte dauzka Rafaren Seat Ronda 2.000ak. Berria erostekotan 92an izan beharko. Asko erabiltzen du, baina garbi utzi nahi du berebi-la bere esklabua dela eta ez alderantziz. Autoestopistak ezagutuz gero jasotzen ditu. Gauez ez zaio gidatzea gustatzen eta euriar irten ere ez da egiten errepidera. Makin-garbitu ohi du, eta Irratia Errealak jokatzen duenean entzuten du bakarrik, bestela era guztietako musika. Ahal duen lekuetan sakatzen dio, baina ez errepede hauetan.




O PARI-DENDA JOKO DIDAKTIKOAK

Etxe hauekin egiten
dugu lan:

Eolo-Gayla, Didacticos
del Sur, Lado, Fontser-
Coma, Goula, Fisher
Price, Constansó, Akros,
JT, Jokoak, James
Hamilton Limited,
Puzzleak, Rosal...

Kometak, Puzzleak,
Umeentzako pinturak...



kumu

Otalora Kalea, Tfnoa: 79 75 43 ARRASATE

Alfabetizazioaren naziorteko urtea (III)

Aurreko artikuluetan alfabetatua izatea zer den azaltzerakoan, 3 alfabetatu-maila ikusten genituen: alfabetatu funtzionala, informazionala eta pertsona letratu.

Pertsona letratuak lortzea daukagu helburutzat, gizarte alfabetatuan parte hartzeko hiritar eragile eta eriziduna izatea beharrezkoa bait da.

Baina pertsona bakoitzak, nola lortzen du maila hau? Batetik, eta astekari honetako aurreko artikuluan esaten genuen bezala, eskolak garrantzi handia du zeregin honetan, bere ikasgeletatik pasatutako pertsonak "letratuak" izan daitezen lan egin dezake edota uko egin diezaioke betebeharrori.

Bestetik, bizitza ez da eskolarekin bukatzen, beraz, eskolarizazioa bukatzean pertsonak (emakumezko eta gizonezkoek) gizartean benetan integratu nahi badute nolabaitetako partaidetza izan beharko dute gizartearen eraikitze-lanetan. Partaidetza honen intentsitatea desberdina izango da gizabanako batetik bestera, baita desberdina ere eragingo dion esparru soziala.

Dena den, pertsona bakoitzak, edozein esparru sozialean parte hartzen duela ere, hainbat ekintza burutu beharko ditu, ekintza hauek amankomunak izango direlarik guztientzat: testuetatik informazioa jaso, eztabaidatu...

Guzti hau dela eta, Arrasateko herriaren azterketa egingo bagenu, zentzu honetan

hainbat aukera eskaintzen dituela konturatuko ginateke. Aukera hauek ustiatzea eta aberastea denon eginkizuna da.

Hemen hainbat erakunde edo elkarteren berri emango dugu, nahiz eta jakin, ez garelako errealitate osora heltzen.

Kanpo utzi ditugun elkarte edo ekintza batzuk oso espezializatuak dira, eta helburu oso zehatzak dauzkaten, ez ditugu aipatuko.

"Klarion taldeko" hurrengo artikuluetan aipatutako elkarte bakoitzaren aurkezpena egingo da: ez dugu, hala ere, elkarteren sorrera, historia edo bilakaeraz hitz egingo, ez bait da gure helburua, baizik eta gure herriaren garapenean elkarte horrek gaur egun betetzen duen funtzio hezitzaile eta kulturalaz.

Hona hemen, besteak beste, hainbat elkarteren zerrenda:

- Euskaltegiak
- Santamainako Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua
- AED.
- Arrasate Press eta ATB.
- Arrasate Yoga Elk.
- Al-Andalus.
- Orkatz Skaut Taldea.
- K.. Internazionalistak.
- EKI.
- Eguzki taldea.
- Udal Biblioteka.
- Emakumeen Asanb.
- Jubilatuen egoitzak.
- Arrasateko Ihardunaldiak (Udako Euskal Unibertsitatea).
- HHI.

Klarion Taldea

Pentsa dezakezun jostailu erakusketa handiena daukagu zure zain.

Jostailu merkeenak hemen aurkituko dituzu

Eco Gasteiz -en

BAZKALORDUAN EZ DUGU IXTEN

Cercas bajas 34, GASTEIZ

ANAI JATETXEA



BEREZITASUNAK

- Bixugua arranbarrilan
- Legatza
- Txuletak
- Legatza-kokotxak

Nardeaga 32,
Tfnoa: 945 - 44 51 01 ARAMAIO (Araba)

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea 4, behe Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE



**Arrasateko udalak, aldi baterako,
IMI ZENTRURAKO BI MONITORE KONTRATATU NAHI DITU.**

Oinarriak Udaletxean jaso daitezke. Instantziak abenduaren 18-a baino lehen aurkeztu behar dira.

Arrasate, 1990eko abenduaren 4a

EYA

ELEKTROTRESNAK

Iturriotz 21, tfnoa: 79 03 14
Erdiko kale 27, tfnoa: 79 13 79



ALTUNA


Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

Japoniako berri

Jon Goikolea arrasatearrak

- Hilaren 13an 7etan Monterronen.
- Hitzalditxo.
- Diapositiba emanaldia.
- Galde-erantzunak.





Aste gazte

Gaztaroa ez da pentsatzeko, maitatu, bizi eta borrokatzeko baino. Pentsamendua heldutasunaren funtzioa da, sagarra udazkeneko fruitua den bezela.

A. Nervo.

Gaztaroan nahi izaten dena, zahartzaroan ugari-tasunez.

Goethe.

Lana

• Debako Udalak, hautaketa libre bidez, Udaltzain plaza bi jabetzan betetzeko deialdia egin du. Instantziak aurkezteko epea: abenduaren 12ra arte (azaroaren 15eko GAO).

• Zumarragako Udalak, hautaketa libre bidez, Drö-gomenpetasun Zerbitzurako Teknikari plaza jabetzan betetzeko deialdia egin du. Eskatzen diren ikasketak: Hezkuntza, Sanitate edo Gizarte Ongizate arloetan erdi mailako titulazioa eduki ala Psikologia, Pedagogia, So-

ziologia edo Medikuntza karrerarako lehenengo hiru mailak gaindituak izatea. Instantziak aurkezteko epea: abenduaren 12ra arte (azaroaren 21eko EHAA. 224 zenb.).

Bidaiak

• “Europa ezagutu” programaren barruan, Lanbide Heziketak ikasketak egiten ari direnei, TIVEk honako bidai-eskaintza hauek egiten dizkie: a) Lisboara, autobusez, joan-etorria, 3.000 pta. b) Parisera, autobusez, joan-etorria, 4.500 pta. Honetaz gain, alojamendu eta jatetxe merkeei buruzko informazioa ere eskaintzen du, bai eta hiri hauetatik zehar ibiltzeko osagarritzko informazioa ere.

Bekak

• Zuzenbide, Historia, Ekonomia, etab. arloetan EEEko zentruetan ikasketak

edo proiektuak burutzeko bekak. Eskatzaileak: postgraduatuak eta karrerako azken mailetako ikasleak. Dirulaguntza: hileko 125.000 pta. Epea: 91-1-31.

Lehiaketak

• Gasteizko emakumeentzako Udal Zerbitzuaren I. Komiki Lehiaketa. Gaia: “gizon-emakumeen berdintasuna etxean”. Zuribeltzean edo koloretan. Sariak: (modalitate bakoitzeko 1.) 150.000 pta, 2.) 100.000 pta. Lanak aurkezteko azken eguna: abenduaren 28a.

*Portugaleteko Uri Urena V. Komiki Lehiaketa. Teknika libre. 2 modalitate: zuribeltzean edo koloretan. Euskaraz ala gazteleraz. Modalitate bakoitzeko sariak: 1.) 75.000 eta plaka 2.) 50.000 eta plaka 3.) 30.000 eta plaka. Lanak aurkezteko azkeneguna: urtarrilaren 11a.

• Loiola’91 Kultur Lehiaketa. OHO ko 6., 7. eta 8.

mailako ikasleei zuzendua. Helburua: Loiolako San Ignazio eta haren herria zabaltea. 5 ikaslek osaturiko taldeentzat. Sariak: 1. fasean sailkatutako taldeentzat astebeteko egonaldia Loiolan. Amaierako fasean klasifikaturiko 9 taldeentzat astebeteko bidaia Erromara eta urre, zilarra eta brontzezko trofeoak lehenengo hiru sailkatuentzat. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 1era arte.

• “Ciudad de Palma” Pintura-Saria. Gai eta teknika libreak. Saria: 700.000 pta eta erakusketa indibidual baten antolaketa. Epaimahaiak hala erabakiko balu, Udalak sarituak izan ez diren zenbait lan erosiko lituzke. Lanak aurkezteko epea: abenduaren 10 eta 28a bitartean.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

**ANALISI KLINIKOAK,
LABORATEGIA**

I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)
GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxebeha, Tinoa: 79 20 18
ARRASATE

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tinoa: 79 20 50

ETXEBIZITZAK

- Arrasaten, erdialdean lau urteko etxebizitza berogailuaz, salgai. Hiru logela, egongela, sukalde amueblatua, bi bainugela, ganbara. Garajea saltzea ere posiblea da. Tfnoa: 79 95 46
- Makatzenan 5. pisu bat salgai daukat, igogailu eta ganbara. Deitu 79 72 39 telefonora.
- Etxebizitza salgai Erguin kalean, oso salneurri interesgarrian. 79 87 41 telefonoz nahi adina informazio.
- Maitena kalean etxebizitza saltzen dut. Interesatuak dei egin 79 33 38 telefono zenbakira.
- Seme-alabarik gabeko bikoteak etxebizitza alokatu nahiluke. Deiegin 79 88 20 telefonora
- Etxebizitza konpartitu baten gela alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 66 45. Jabi.
- Etxebizitza salgai, Loramendi 6-14.A . amueblatua. Tfnoa.: 79 98 03 Arratsaldez edo gauzez.
- Etxebizitza alokatzen da Gasteizko Adriano VI kalean. Interesatuak dei 79 31 77 tfnora.
- Merkatala lokala salgai. 119 metro karratu, 60.000 pta/metro karratuko. Helbidea JL. Iñarra pasealekua, 26. Tfnoak.: 79 99 81 / 79 92 43.

LANA

- IEE bigarren mailako Fisika eta Matematika ikasketak ematen dira (Injinerutzako hirugarren mailako ikaslea). Tfnoa: 88 25 71 (Ostiral gaua eta igandea bitartean)
- OHoko klase partikularrak emateko prest. Euskaraz nahiz erdaraz. Dei 79 50 99 Tfnoa. Esther.

- Neska euskaldunak lana egingo luke arratsaldez. Bergara edo Arrasaten. Tfnoa: 76 52 39 gaueko 9etatik aurrera.
- IEE I, II eta OHoko klaseak ematen ditut larunbat goizetan, bai euskaraz, bai erdaraz. Tfnoa.: 79 99 82. Iñaki
- Andra euskalduna etxeko lanak edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 07 73
- OHoko klase partikularrak ematen dira euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19 Itziar.
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 97 58.
- Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest. Deitu 79 78 65 tfnora
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei egin 79 29 05 edo 79 77 57 tfnoetara.
- Fisika ikasketak ematen dira. Goizean eta arratsaldean. Ffnoa: 77 13 95

SALEROSKETAK

- «2.600» bideo-jolas kontsola salgai egoera onean. 5.000 pta. Tfnoa.: 78 17 88. 9etatik aurrera.
- Ilepaindegirako tresnak salgai daude. Egoera onean. Tfnoa.: 76 61 66
- «Montaña del Pirineo» txakurkumeak salgai. Pedigreerik gabe, baina jator jatorrak. Tfnoa.: 79 97 60
- Etxebizitza baten ohea alokatzen da. Tfnoa.: 79 07 73
- Pedigree duen Colli txakurra behar da kumeak egiteko. Tfnoa.: 79 64 50. 9etatik aurrera.
- Pastor aleman txakur kumeak salgai. Tfnoa: 79 15 21. Jose Luis Berezibar.
- Musika ekipoa salgai, prezio onean. Tfnoa.: 79 45 39 Joxe Felix.
- MSX ordenadore jokua salgai. Zinta bakarra.

- Erbe software. Taipan jokoa. Deitu 79 15 96 telefonora.
- FAGGIN errepidetako bizikleta urdina salgai. Neurria 53. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepidetako bizikleta urdina salgai. Neurria 48. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepidetako bizikleta beltza salgai. Neurria 48. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepidetako bizikleta gorria/txuria/
- Klarineta erosiko nuke. Tfnoa: 78 16 19. Maritere
- Larruzko botak 42 zenbakia, Thinsulate Vibram eta altzairuzko plantila oso ondo zainduak. 7.000 pta.tan salgai. Kranpoiak lotura sarekin 12 puntazkoak ia berriak, 5.000 pta.tan. Mikel, ostegunetik astelehenera gauzez. Tfnoa: 79 53 40
- Zibro Kamin RCA-86B berogailu japoniarra bi urtekoa eta egoera onean salgai. Dei egin 79 62 39 tfnora 12.00etatik 14.00etara edo 17.00etatik 19.00ak bitartean. Mila

DENETARIK

- Eraikitzeko lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 79 25 86 tfnora.
- Astelehen goizean Donostiara joateko, bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirateke. Dei egin 79 13 83 tfnoa. Arrasate.
- New York-etik gure Arrasateko lagunari musu handi bat. Sharryn, Geoff eta Kikin-en partez.
- Bi gazte larunbat goizetan buzoneo edo halakoren bat egiteko prest. Harrematarako dei egin 79 55 35 tfnora. Arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel.

ARRASATEN HILDAKOAK

M^a Concepcion Garcia Dominguez
azaroaren 21ean, 36 urte

Felisa Elorza Aranburu
azaroaren 21ean, 36 urte.

Ismael Hernandez Dominguez
azaroaren 26an, 61 urte

Juan Oruna Balanzategi
azaroaren 27an, 70 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Tomas Azula, Monterroneko atezaina

- Ehiza ala arrantza? Denboraldia hasten denean, bietara ibiltzen naiz.
- Galeperrak ala konejuak? Galeper, koneju, erbi, eta eper.
- Gaztain erreak ala egosiak? Erreak, haize batzuk botatzeko ere.
- Zuzak ala arbigarak? Zuzak noski, arbigarak gailegoentzat.
- Tangoa ala balsa? Tangoa, buelta gutxiago ematen dira eta.
- Udazkena ala udaberria? Udaberria, atzetik uda dator eta.
- Sanjuanak ala Santamasak? Sanjuanak.
- Ekologistak ala basozainak? Biak dira beharrezko. Ekologisten artean denetarik dago, eta ehiztarien artean ere bai.
- Katiuskak ala mendiko botak? Neguan katiuskak, eta bestela mendiko botak.
- Loteria ala kinielak? Ez naiz jokozalea, nire andrea bai. Jokatzekotan, loteria.
- Txakurra ala katua? Txakurra, orain ere bi dauzkat.
- Pinua ala pagoa? Pagoa, egur hobe da.
- Iparraizea ala hegohaizea? Hegohaizea, bestea hotzegia da.
- Amaginarreba ala erraina? Honrek, biak antzerakoak dira.
- Umeak ala adinekoak? Umeak, onak dira.
- Zartagina ala lapikoa? Biak, barrukoa ona egonik.
- Ohe gogorra ala biguna? Biguna.
- Biago egin ala berandu jaiki? Ez bata eta ez bestea; goiz jaikitzea gustatzen zait.
- Postalak ala gutunak? Gutuna hobe, horrela inork ez du irakurtzen.



Zelebrequerixak

Kontxo, fijau barik najauan; hik illia zurixa daukak eta bizarra beltza.
- Bai ba, bizarra hogeit urte gaztiau dok eta.



Jai atsaldia txurrut eta txurrut El-goibarren pasau ondoren, Fernando sekulako melokotoiak in joan zan estaziñora. Lenengo ailegau zan trena «Pullman» a izan zan, eta ez billete eta ez prosoziño, primerako kotxian sartu zan.

Jarri zan butaka eder baten eta aurrez aurre zeukan espilluan gizon bat ikusi zeban.

- Nun ero nun ikusi juat pa tipo hori, baiña enok akordatzen.

Baiña laster argittu zotsan ardaauk burua.

- Bai gizona! Gaur goizean peluke-rizan euki juat aurre aurrian.

Eta pozik asko lo seko geldittu zan harri kokkorran pare. Bixamonian, Atxuriko estaziñoan, Bilbon esnatu ei zan.



Ohi zanez, berandu samar urten zien Fernando eta lagun bat tabernatik belarriko zuloraino ardaoz beteta. Lagunak andrian billurrez hola esan zotsan Fernandoi:

- Goazenak etxera, berandu dok eta.

- Oindio eztok hain berandu eta beste bat hartuko juau.

Diskusio honetan ziharduela, dan! goizeko ordubatak jo zeban elizako kanpandorrian.

- Ordubatak! -esan zeban lagunak.

- Bai zera, hamarrak -Fernandok.

- Burutik egin jak ala? Eztok entzun kanpai-hots bakarra jo dabena?

- Hoixe baietz, baiña zela nahi dok pa zerua jotia?

Juan Martin Elexpuru

comercial
san juan

Garibal 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein


ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO

Ferrerrias 21 Tfnoa. 797006
ARRASATE



Santa Agedako Bainuetxea mende honen hasieran.

X

V menderako ezagunak ziren Gesalibar auzoan, Murugainen magalean, Santa Ageda elizaren ondoan zeuden ur sulfurosoak. Esteban Garibaik aipatu zituen. XVII eta XVIII mendeetan oso preziatuak ziren. Hasieran elizako serorek erabiltzen zuten.

XIX. mendearen hasieran egin zen bainuetxea. 1870ean eraberritu egin zen. 1873 eta 1875 urtean karlistek ospitale moduan erabili zuten. Geroago, Espainiako Isabel II erreginaren gorteak modan jarri zuen. 1897ko abuztuaren 8an Miguel Angiolillo anarkista italiarrak Antonio Canovas del Castillo, orduko Ministrari Kontseiluko Lehendakaria hil zuen.

Ondorio txarrak izan zituen hilketak, jendea uxatu zuen eta bainuetxetik. 1898tik aurrera Ospitale Psikiatriko bihurtu zen, gaur arte.


Hiru iturri nagusi ditu. *Lorate-gikoari*, 29,2 litro ur dario minutuko ura dario 17,5 temperaturan; *Abadearenari* 3,3 litro minutuko, 14^otan eta *Bainuenei* 28,2 litro, 13,5^otantan.

**PUB
HAIZEA**



ENARA 
OSAGARRIAK


Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



ASUNCION IKASTETXEA



KONTUZ HALZE AZ.



ASMATU!!!

Zeruan dago. Horia da. Argia danka eta berotzen da.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU


EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

Paulo Otsoari



Hotz eta euri
azaroaren amaieran
joan haiz isil-isilik
bizitzaren zamapean.

Tristeia duk udaberrian
lorea zimeltzen ikustea;
benetan hunkigarria
gaztaro betean etsitzea.

Bizitzako legea duk
agur egitea zaharrak.
Baina hiri,
zergatik huts egin dik
bizitzeko indarrak?

Buruhausten gabiltzak
esplikazioaren bila.
Baina agian,
ez duk zaila ulertzen
zergatik hagoen hila.

Inkomunikazioa
eta bakardadea
ez dituk berez sortzen.
Garaile eta indartsuena duk
egin dugun gizartea;
beste askoren sakrifizioa,
horixe dik prezioa.
Itsu eta gor gaudek
ohartzeko inoren atsekabeaz;
beti gabiltzak lanpeturik,
nahikoa diagu geureaz.

Eman biezak atsedean
besarkatu hauen lurrak,
eta ez bedi izan antzua
hire heriotzaren mezua.

Usteltzen den hazitik
ernetzen duk bizi berria;
hala bedi hirekin ere,
Paulo maitagarria.

Pailazo txiki batek
bihotz zartatuaz
agur esaten dik
irribarre izoztuaz.

Iñaki Mendiguren

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Gabon Libartzatza, Araste

✓ **TWIN PEAKS:** Azkenean Laura Palmer hil zuenaren izena jakin barik gelditu ginen. Azaroaren 29ko kapituluak dena utzi zuen aidean, Tele 5ren publizitateak iragarri zuenaren kontra, ez zen izan eta, benetako azken kapitulua. Ez hori bakarrik. Gogoratzen ditudan azken irudietan, hiltzaile ezezagun batek egindako tiroek nola zulatzen zuten Cooper agente bereziaren alkondara eta filmea ixten zuen planoaren gainean, *To be continued* tartela, jarraituko duela iragarritz.

Hasieran ahobete hortz gelditu nintzen horrelako bukaerarekin, baina poztu ere bai, horren gustora ikusi dudak serieak segida izango duelako. Horrek baino, hala ere, Cooper-en heriotzak kezkatu ninduen, niretzat behintzat hura bait zen filme osan pertsonaiarik harrigarrien eta erakargarriena. Geroago prentsan irakurri ahal izan dudanez, bala hiltzaileak ez ziren nahikoa izan FBIko agentea hiltzeko, eta horrek izugarri poztu nau. Zain nago datorren udazkenerako iragartzen duten jarraipena ikusteko.

✓ **ANTISORGAILUAK GOIZ KRONIKAN:** Euskadi Irratiaren Goiz Kronikaren amaiera aldera, hainbat gazteri antisorgailuei buruzko itauna luzatu zitzairen. Nik hiru erantzun baino ez nituen entzun, baina nahikoa izan zen berebiletik harrিতuta irteteko.

Gazteak ziren, berriro diot. Batek alde hitz egin zuen eta beste biek aurka, gure gazte denboran inor gutxiri okurrituko zitzaizkion argudioak erabiliz. Nagusia, antisorgailuek bizia eragozten dutela, pulpitoetan askotan entzun izan den erretorikaz jantzita.

Edo eskola erlijioso batera joan ziren galdeketa egitera edo gure gazteria ikaragarri ari da aldatzen. Eta gazteria dioenak gizartea dio, jakina.

✓ **PRETTY WOMAN:** Hori zen Alai zineman joan den asteburuan eman zuten filmearen izenburua, baina zine aretoa ia betetzen zuten neskatilak ez ziren emakume ederra ikustera joan, Richard Gere baino. Orain arte ia beti paper marginalak jokatu izan dituen amerikar gigoloak azken honetan negozio-gizon aberatsarenak egiten zituen. Horretan ere guapo, aretoan entzun zirenak entzun ostean behintzat.

Joxe Aranzabal

Gusto baduzu

❑ KIROLEZ KIROL

Euskal Herri osoan egondako kirol neurketen laburpenak, eta erretransmisioak zuzenean. Igandean eguerdiko hamabietan zuzenean eskainitako erretransmisioa, arratsaldeko seietan ACB Saskibaloit Ligan gertatutakoaren laburpena, eta gaueko hamarretan asteburuan eta kirol munduan gertatu direnei buruzko berri eta irudiak.

❑ HAU NAHASTE BORRASTEA

Telesail honetan, umorea erabiliz, arraro samarrak diren pertsonaien gorabeherak kontatzen dira. Aste honetan Mirenek kolpea hartzen du buruan, eta ondorioz, nortasun aldaketa izango du, emagalduta bat dela pentsatzen duenari. Asteartea, 23.10etan.

❑ TERTZIOPELO URDINA

Filme honetan makina bat deabrukeria eta gaiztakeriaren berri ematen da, horretarako lau pertsonaia desberdinen bizitza erabiliz: ikasle inuxente bat, kabaret bateko abeslaria, ikertzaile baten alaba, eta erahile psikopata bat. Asteazkena, 21.20etan.

elkarrizketak

Bideoak

ELKARRIZKETAK 10-11

HABEk euskaraz ikasten ari direnentzat ateratzen dituen bideoak dira, hamar elkarrizketaz osatuak. Edurne Enbeita, Irineo Ajuria, Iñaki Perurena, Juan Mari Torreal-dai, Kepa Sanpedro, Maria Jesus Arregi eta beste hainbat elkarrizketatzen dituzte kazetari ezagunek.

Ostadar irratia

OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)


ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-liru-ii* (Haur kantak)

OSTEGUNA

1 eta 8. *Iratia-gelan* (Gelako grabaketak)

OSTADAR Irratia. 102 FM



Patxi Uribarren aramaioarrak *Erretratoa* programaren dekoratu berria estrenatu zuen joan den asteen. Patxi, Etxaguen auzoan jaio zen, Uribarren baserrian, eta fraile karmeldarra da. Santutxuko karmeldarren komunitatean bizi da eta Bizkaiko Diputazioan egiten ditu itzultzaile lanak. *Adorez* taldeko kidea da eta orain dela gutxi Euskarazko Hiztegi Oinarrikoa argitaratu dute, plazaratu dituzten hiztegieta laugarrena.



Aurrerantzean, *Saltsa-maltsan* programaren bigarren aldi honetan, era guztietako pratelak nola prestatzen diren ikusteko aukera izango duzue. **Juanita Zabalo** sukaldari antzuolarrak, Auzo-Laguneko langilea bera, Euskal Herrian eta kanpoan ere ezagunak diren errezetak prestatzen erakutsiko digu astero. Programa hau *Fagor* eta *Auzo-Lagunen* laguntzari esker egiten da. ATBren pantailetan astelehenero, Mondrasporten ostein. On dagizuela!

10. ASTELEHENA
 18.30 Teletestua
 19.30 Bapirulauke.
 Asunción eskolan grabatua.
 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
 20.20 Mondrapost, Beñardo Kortabariak zuzendua.
 20.40 Saltsa-maltsan.
 Juanita Zabalok prestatuko ditu.
 Berriak (errepikaldia).

11. ASTEARTEA
 11.00 Teletestua.
 12.00 Bapirulauke (bezperakoa).
 12.30 Berriak (bezperakoa).
 13.10 Saltsa-maltsan (bezperakoa).
 13.20 Bapirulauke (bezperakoa).

12. ASTEAZKENA
 19.00 Teletestua.
 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
 20.20 Zenbat buru, hainbat aburu. J.M. Velez de Mendizabalek zuzendua.
 Gaia: Arrasateko abesbatzak.
 Gonbidatuak: Juan eta David Artzamendi, Gurutze Uribarren eta Juan Bautista Agirre.
 21.00 Berriak (errepikaldia).

13. OSTEGUNA
 11.00 Teletestua.
 12.00 Berriak (bezperakoa).
 12.20 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa).

14. OSTIRALA
 19.00 Teletestua.
 20.00 Berriak, Begofia Garak aurkeztua.
 20.20 Erretratoa. J.R. Elortzak zuzendua.
 Gonbidatua: Jon Goikolea, Tokyon bizi den arrasatearra.
 20.50 Musikantoi. Mikel, Asier, Pepe eta Patxiren programa psikodelikoa.
 Berriak (errepikaldia).

15. LARUNBATA
 11.00 Teletestua.
 12.00 Berriak (bezperakoa).
 12.20 Erretratoa (bezperakoa).
 12.50 Musikantoi (bezperakoa).



SUKALDIAK

Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu


Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Bukatu duzu azkenean hain urrutiko ikusten zenuen proiektua; halere zure izakera dela eta, beste zeozeri ekiteko irrikan zaude; lasai hartuizu, hasiera txarren bat izateko arriskua egon liteke eta. Gogoan izan astiro dabilena urrun heltzen dela.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Hainbeste buelta eman eta gero, iritsi zaizu norabide berria hartzeko ordua, Leo. Astiro hartuizu, etorkizuna egunez egun finkatuz, aurreraegi begiratzeak ildotik atera bait zaitzake. Osasun egoera hobetuz doa.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Urteko unerik edo egoerarik onenean zaude arlo guztietan. Amodio kontuetan maitalerik onena izango zara eta intelektualki ikasle eta mezularik onena. Hilabete osoa segituko duzu horrela, eguzkiak behar adinako energia emango dizulako.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Zuregan eragiten duen Venus planeta ez dago egoki kokatuta, Tauro. Honen ondorioz benetan maite dituzunekin erasokor egoteko joera izango duzu. Indar maltzur hori ariketa fisikoa eginez kanporatu; maitagarriago egongo zara.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Noraezean aurkitzen zara eta luzeegi egiten zaizkizu egunak. Ez litzateke gaizki egongo lagun zaharrek harremanetan jartzea; telefono dei bat egitea baino ez da, Virgo. Halaber, gizarte mailan izaten dira hainbat ekintza. Alimo!



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


A zelako egoeran dagoen zure esparrua, Capricorn. Uranoren posizioak arazoan zergatia arrazoitzen lagunduko dizu eta Jupiterrenak berriz, hartutako erabakiak finkatzen. Bazen, bai goia ikusteko ordua, ezta?



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Odolbero egongo zara, Gemini eta barra-barra botako dituzu ideia berriak. Honez gero, zure laguna asperten hasia izango da egonezin horrekin. Etorkizunerako erabakiren bat hartu beharko zenuke, trena galtzea suerta liteke eta.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Norbaiten gonapean bizi zaren ustea izango duzu. Horrela bada, duda-mudatan eta gurpil zoro batean bizi izateko arriskua egon liteke. Adore piska bat atera ezazu eta hasi zaitetz behingoan zeure erizkiak ere ematen.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lelo xamar ari zara laguna zeureganatu nahi horrekin. Alperrikakoa izango da ahalegin hori, Acuario; zeure onetik aterata eta eroak bezala ibiltzea baino ez duzu lortuko. Gauzak norberarenak izaten dira, baina pertsonak ez.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Burua argi daukazulakoan egongo zara, baina zure irudikeriak nabarmenegiak izango dira besteengan eragina izateko eta gezurtizat har zaitzakete. «Usteak erdi ustel» esaeraren zergatia jakitea primeran etorriko litzazuke.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Sekulako gaitasuna izango duzu sormenerako, Scorpio; ikasteko eta edozein arazo eraman ahal izateko ere bai. Jarrizu guzti hau praktikan, horren truke jasoko duzun saria ez bait da edonolako izango. Gauza bera amodio kontuetan.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Intuizioa argi-argi izango duzu, Piscis. Ez zaitetz ibili besteen esanetara, irudimenak diotsunaren arabera baizik. Burura datozkizun ideia guztiak jorratzen saiatu, etekinik aterako diezu eta.

Mondragonesa Grafikagintza

Olarten gaude dagoeneko

Zatuz ikustera eta galdetu prezioak askatasun osoz.

- Bulego materiala.
- Bulego teknikoko materiala.
- Eskolarako materiala.
- Oparigaiak -narruzko diseinu italiarrak, bazarra, markarik oneneko boligrafoak
- Fotokopiak.
- Karpetak eta papergaiak.

Idazmakinarik mugikorrena zeure esku.

Oferta aparta, Gabonetako kanpaina.

Bulegorako makinariak asmatu berrienak: garantiaz, mantenuaz, zerbitzu tekniko kualifikatuaz.

- kalkulagailuak.
- Itzulgailuak.
- Telefaxa.
- "Develop" Fotokopiagailuak.

FAST

2000

▲ EURO XT ▲

3.5"tako disketegia
Kolore bakarreko monitorea 14"
Sistema eragilea

PSN-PVP= 164.304 pta.

▲ EURO PC II

3.5"tako disketegia
Kolore bakarreko monitorea.12"
Sistema eragilea
4 joko

PSN-PVP= 94.640 pta.

▲ EURO AT 20Mb ▲

3.5"tako disketegia
20 Mb disko gogorra
Kolore bakarreko monitorea 14"
Sistema eragilea

PSN-PVP= 231.840 pta.

▲ EURO AT 40 Mb

3.5"tako disketegia
40 Mb disko gogorra
VGA koloretako monitorea
Sistema eragilea

PSN-PVP= 295.042 pta.

Fast 2000an ordenadorearentzat behar duzun guztia aurkituko duzu: inprimagailuak, disketak, ordenadore estalkiak, mahaia, jokoak, eta markarik onenak: Schneider, Top Computer, Epson, Manesman, 3M...

BEZ sartuta dago
prezio guztietan

Zain gaukazue
Ferrerias kaleko 50ean.
Tfnoa: 77 14 75
ARRASATE.

ARGAZKI MAKINA zoragarri bat
ERREGALATUKO dizugu
ordenadorea erostean.

MUGARRI

Berri-berriak



Escort



Orion



Ford modelo berriak